

1. ANTZINAKO ERREGIMENA.


Oinarriak, krisia eta gainbehera.

- Sarrera
 - Definizioa: Erdi Aroko Feudalismoaren deskonposaketatik etorritako sistema ekonomiko, sozial eta politikoa da, Europan indarrean mantenduko dena iraultza liberal eta industrialera arte.
 - Sorrera: Errenazimentuan, merkataritza kapitalismoaren garaipenak eta larderiako monarkien baieztapenak Erdi Aroko Feudalismoa aldatzen duten unean.
 - Terminoak: Frantziako Iraultzarekin batera sortu zen, iraultza honen ondorioz amaitu zen garaia azaltzen du.
 - Ezaugarriak: geldialdi demografikoa, absolutismo monarkikoa, gizarte estamentalak eta jauntxoaren erregimenaren iraunkortasun, kapitalismo hasiberriarekin lehian.
 - Aldaketa edo trantsizioa: Izan zen aldaketa prozesua ez zen berdina izan herri bakoitzean. Prozesuaren faseak eta ondorioak ezberdinak izan ziren, leku bakoitzean. Alkadeketak XVIII. eta XIX. mendeetan zehar bizi zen prozesuan sortu ziren, hau da, aldaketak ez ziren aldi berekoak izan, ezta arintasun beraz ere.
- Biztanleria: Trantsizio demografikoa.
 - XVI. mendetik XVIII. mendera Europako biztanleriak hiru hazkunde-garai igaro zituen.
 - XVI. mendean hazkunde motela izan zen
 - XVII. mendean krisialdia bizi zen, izurri, gerra eta gosearen ondorioz.
 - XVIII. mendean biztanleria nabarmen hazi zen, batez ere bigarren erdialdean: jaiotza-tasa oso altua izan zen, baina heriotza-tasa behera egin zen. Arrazoiak: gerretan jende gutxi hil zen, izurri gutxi izan ziren, baita uzta txarrak ere, eta elikadura-dieta hobetu egin zen.
 - Erregimen demografikoa ALDATU EGIN ZEN, biztanleria etengabe handitzen delako produktuen eskariaren handitzea.
 - Ekoizpena handitzeko premia.
- Nekazaritzan oinarritutako ekonomia:
 - Europako biztanleriaren %80 baino gehiago landan bizi zen eta nekazaritzan zein abeltzaintzan jarduten zuen.
 - Nekazaritza: EZ ZEN EMANKORRA
 - Atzerapen teknologikoa
 - Fenomeno naturalen menpean
 - Lurraren jabetza jauntxoaren esku
 - Bi ustiatze-sistema:
 - Eremu irekiak: hesirik gabeko lur-sail handiak, jabe bakarrekoak edo kolektibokoak, zerealak.
 - Itxiturak: hezien bidez mugatutako jabe bakarreko lur-sail, denetarik landatzen zen.
 - Lur komunalak eta abeltzaintza:
 - Auzokoen artean partekatzen lurrak: abereentzako larreak eta basoak (egurra).
 - Abeltzaintza garatuta ez zegoenez, ez zegoen nahiko okela eta esne populazio guztiarentzat.
 - Lurraren jabetza:
 - Jauntxo laikoak eta elizakoak: Jaurerriak
 - Lurralde Jaurerriak: nekazariak errenta ordaindu behar izaten zioten jauntxoari.
 - Eskumeneko Jaurerriak: jauntxoak aginduak eta arauak ezartzen zituen lurralde hauetan, zergak, justizia, karguak izendatu, etab.

- Nekazariak zergak ordaindu behar izaten zituzten, hiru jasotzaile izanik: erregea, jauntxoak eta kleroa (%10 uztaren).
 - Mendetan zehar, zergak igotzen ziren, gerrak ez ziren amaitzen eta burokrasia eta administrazioa gorakada nabarmena izan zuten.
 - Nekazaritzaren produktibitate urriak, goseak eta prezioen gorakadak nekazarien kexak eragiten zituzten.
- Eskulangintza-industria:
 - Hirietako eskulan-jarduera gremioek kontrolatzen zuten.
 - Eskulangileen elkarte horiek monopolioak ziren.
 - Eskulangileei zegokien gremioan sartuta egotea.
 - Aldi berean, XVII. mendetik aurrera “domestic-system”-a garatu zen.
 - Sistema horren bidez, inbertitzaile kapitalista batek lehengaiak erosi eta nekazarien etxeetan banatzen zituen.
 - Produktua etxean egiten zuten eta ondoren inbertitzaileak jaso eta prezioa librean merkaturatzen zuten.
 - XVIII. mendean beste sistema industrialak ezagutu zen, babestutako lantegi handiak.
- Merkataritza:
 - Merkataritza izan zen gehien garatu zen ekonomia sektorea, batez ere, nazioarteko merkataritza handia.
 - Europako estatu askok Europaz kanpoko lurraldeak konkistatu eta inperio handiak sortu zituzten (Espainia, Portugal, Frantzia, Ingalaterra eta Probintzia Batuak).
 - Estatu modernoek merkataritza-monopolioak ezarri zituzten, menpean zituzten guneetan.
 - Monopolio horiek gobernuek babestutako konpainia pribilegiadun handiek kontrolatzen zituzten.
- Pribilegio gizartea:
 - Gizartea hiru estamentutan banatzen zen:
 - noblezia
 - kleroa
 - hirugarren estamentua edo herri xehea.
 - Zaila zen batetik bestera pasatzea. Jatorrizko desberdintasunean oinarritutakoa zen.
 - Lehenengo biek pribilegio handiak zituzten. Adibidez, Frantzia XVIII. mendean amaieran pribilegiadunak biztanleria osoaren % 2 ziren.
 - Hala ere, herri xeheak bere baliabideak eta lanerako indarra baino ez zituen bizirauteko.
 - Gizarte-banaketa horrek bazterketa zorrotzak eragiten zituen. Haien kontrako taldeak sortu ziren eta hauetan ideia erreformistak eta iraultzaileak erroto ziren.
 - Gizarte estamentala.
 - Pribilegiatuak, noblezia eta kleroa:
 - Nobleziaren goreneko maila aristokrazia zen. Boteretsuenek eta aberetzenek osatzen zuten, administrazioko eta armadako goi-karguak zituztenek. Bere boterea XVIII. mendean zehar handitu zen.
 - Gainerako nobleziarena, hala ere, txikitu egin zen. Horregatik, goi-burgesia eta noblezia elkarrengandik hurbil geratu zen.
 - Noblezia eta kleroa ez zuten zergarik ordaintzen. Errege-ogasuna herri xeheak soilik ordaintzen zuten eta gainera ez zen eraginkorra, estatuaren diru-sarrerak izugarri mugatzen zituelako.
 - Herri xehea
 - Biztanle gehienak herri xehearen zati ziren, biztanleriaren %97.

- Herri xeheak edo hirugarren estatuak ez zuen ez pribilegio juridikoak ez eta ekonomikorik ere, eta zergak ordaindu behar izaten zituen.
- Hirugarren estatu honetan, burgesiak izaten zuen bizimailarik onena.
- Garapen ekonomikoaren oinarritzko gizarte-sektore bat izan arren, gizarte-zeregin murrizta zuen. Boterea aristokrazia eta kleroaren hierarkiaren esku zegoelako.
- Udal-kargu batzuk baino ez zituen izaten eta goi politikatik urrun zegoen.
- XVIII. mendean burgesak ez zeuden gustura bere egoerarekin, politikan eta gizartean eragin handiagoa izan nahi zuten eta politikan, administrazioan, armadan eta Elizan parte hartzea eskatzen hasi ziren.
- Nekazariei dagokienez, Europako biztanleriaren % 80 inguru ziren, eta basailu, jopu edo maizter gisa egiten zuten lan. XVII. eta XVIII. mendeetan zehar, beren nahigabe erakutsi zuten: zerga altuak, eta bizimoduaren garestitzea jauntxoek presioagatik.
- Absolutismoa:
 - Europar XVI. mendetik XVIII. mendearen amaierara arte, monarkia izan zen gobernatzeko modurik nagusia. Estatu botere guztiak erregearen esku daude.
 - Monarkia absolutua eta bere mugak:
 - 1. Tokiko botereen erresistentzia eta tokia administrazioaren erresistentzia. Biztanleek tokiko agintariei men egiten zieten, erregea baino hurbilagoak ziren eta inoiz ez zuten erregea ikusten. Nekazariak jauntxoek esanak betetzen zituzten eta hirietan udalak boteretsuak ziren.
 - 2. Erregeen kontrolaren eraginkorrik eza. Erregeek lege asko zabaltzen zituzten, baina hauek ezartzea zaila zen administrazio zabala eta konplexua behar izaten zutelako, baita funtzionario kualifikatuak ere. Nahiz eta funtzionario berriak sortu zituzten (intendenteak, alkateak, errejidoreak, probintzietako gobernadoreak), erresuma osoan boterea finkatzeko, ez ziren nahikoak izan.
 - 3. Aristokraziaren eta beste gizarte-talde batzuen mugak. Zenbait lege zabaltzeko eta zerga berriak ezartzeko, ordezkarien batzarren onespina behar izaten zuen erregeak. Batzar horiek izen ezberdinak hartzen zituzten herriaren arabera: Gorteak, Parlamentuak, Estatu Orokorrak,... Ez ziren erakunde demokratikoak.
- Despotismo Ilustratua:
 - XVIII. mendean Europako monarkia absolutuetan, erreforma politika bat proposatu zen filosofia-korronte berri baten ideietan oinarritua, Ilustrazioan hain zuten.
 - Erreforma-politika zertan oinarritu zen?: estatua sendotu, administrazioa zentralizatu, armada profesionala osatu, parlamentuen eta beste erakundeen boterea murriztu. Beste aldetik, ekonomia hobetzea beharrezkoa zela jakinez, merkataritza eta industria garatu ziren eta aurrerapen zientifikoari eta hezkuntzari mesede egiten zieten.
 - Baina erreformek ez zuten Antzinako Erregimenaren oinarria aldatu.
 - Despotismo ilustratua estatua erreformatzen saiatu zen, baina oinarriak aldatu gabe.
 - Gizarte estamentalak eta jauntxoek erregimenak beti bezala jarraitu zuten.
 - Pentsaera hori erakusten da esaldi ezagun honetan: "Todo para el pueblo, pero sin el pueblo".
- Erregimen parlamentarioak
 - Europa osoan XVII. mendean zehar ez zegoen monarkia absolutuak soilik, Ingalaterra eta Probintzia Batuetan gizarte-maila ertainek botere politikoan parte hartzea lortu zuten.

- Ingalaterran, erregeak absolutismoa ezartzen saiatu ziren, baina Parlamentuak bi iraultza bultzatu zituen: bata 1649 an eta bestea 1688 urtean. Urtebete geroago, errege berriak Gilen III.ak Eskubideen Adierazpena sinatu behar zuen -Bill of Rights-, erregearen botereak Parlamentuaren menpe jartzeko.
- Probintzia Batuetan, Espainaren kontrako errebolaren ondoren, errepublika ezarri zen, hau da, erregerik gabe gobernatzeko. Lurraldea zazpi probintziek osatzen zuten eta bakoitzak bere parlamentua zuen. Parlamentu horiek Estatu Orokorretan biltzen ziren, erabaki komunak hartzeko.



- Antzinako Erregimenaren krisia
 - Antzinako Erregimena, XVIII. mendearen azken herenean, krisian murgilduko da, kapitalismoaren garapenarekin eta Ilustrazioaren ideiekin batera.
 - Kapitalismoak jauntxoaren erregimena kolokan jarriko du eta Ilustrazioak, sistema politiko eta soziala.
 - Hazkunde demografikoak eta nazioarteko merkataritzaren garapenak salgaien eskaera eta prezioen handitzea ekarriko dituzte.
 - Errenta finkoak zeuzkatenek, hau da, nobleziak, beraien erosteko ahalmena jaitea ikusiko dute.
 - Horiek, errenta aldagarriei –dirua eta ondasun pertsonal eigarrantzi handia emango diete. Azken finean, izan ziren aldaketa hauek jauntxoaren erregimena kolokan jarriko dute. Iraultzek, liberalek eta industrialak, jauntxoaren erregimenaren oinarrekin amaituko dute.
 - Beste aldetik, pentsalari ilustratuek pribilegio feudalei eta gizarte estamentu-banaketari uko egiten zieten. Fanatismo eta intolerantziaren aurka zeuden.
 - Askatasun ekonomikoa eta liberalismoa defendatzen zituzten, absolutismoari aurre eginez.
- Ilustrazioa: oinarriak
 - XVIII. mendean pentsatzeko eta gizartearen errealitatea hautemateko beste modu bat azaldu eta garatu zen.
 - Oinarrizko Ideia: arrazoia eta askatasuna erabiltzea zen, emantzipazio intelektual eta pertsonalerako tresna gisa.
 - Pentsamendu ilustratuen ezaugarriak:
 - arrazoia,
 - kritika,

- botere zibilaren autonomia defendatzea,
- erlijio-tolerantzia,
- ekonomiarekiko eta aurrerapen materialarekiko interes handia,
- Hezkuntza, arrazoa hedatzeko tresna gisa,
- zientzia esperimentalekiko interesa.
- Prusiako filosofo ilustratua
 - **Kant** 1724-1804
 - Eragin handia izan zuen Europako filosofia modernoan.
 - Filosofia garaikidearen oinarriak ezarri zituen.
 - Ilustrazioan sinesten zuen.
- Kant-en arabera, Ilustrazioak gizakia adin txikitik ateratzeko eta emantzipatzeko bitartekoa zen.
- Gizon ilustratu berriak gizakiak, gizarte-tradizioak, politikak eta erlijioaren eragina ezartzen zituen mugak alde batera utzi behar zituen.
- Gizon ilustratu honek, jakintzaren eta arrazoiaren argiek gidatzen zutela, natura menperatzeko, aztertzeko eta ulertzeko gai ikusten zuen bere burua, zientzia esperimentalaren bidez.
- Ilustrazioa Ingalaterran eta Probintzia Batuetan sortu zen 1680an eta 1730. urteen arteko garaian.
- Ondoren, Frantziara, Italiara eta estatu alemaniarretara zabaldu zen, eta gero Europa osora.
- Pentsalari ilustratu handiak:
 - **John Locke** 1632-1704
 - Liberalismo politikoaren aita
 - Absolutismoa kritikatu
 - Herri-subiranotasuna
 - Giza eskubideak errespetatu
 - Botereen banaketa (legegilea eta betearazlearen artean)
 - Tiraniaren aurka matxinatzeko eskubidea.
 - Testu bat:
 - J. Locke *Gobernu zibilar buruzko bigarren tratatua* (1690)
 - Beraz, gizaki kopuru jakin bat bildu eta gizarte bat osatzen baldin bada, eta haietako bakoitzak lege naturalari ez jarraitzeko erabakia hartu eta eskubide hori komunitatearen esku uzten baldin badu, orduan soilik eratuko da gizarte politiko edo zibil bat. Hori gertatzen da naturazko egoeran bizi ziren gizakien multzo bat elkartzen bada, gobernu goren baten menpeko herri bat edo erakunde politiko bat osatzeko, edo dagoeneko eratuta dagoen gobernu bati norbait atxikitzen baldin bazaio.
 - Horregatik, gizakiak gizarteari baimena ematen dio -hots, botere legegileari-, gizarterako onuragarriak diren legeak egin ditzan gizakiaren izenean, bai eta lege horiek betearazteko ere, banakoa bera bertan egongo balitz bezala (norberak hartutako erabakiak izango balitz bezala). Hain zuzen ere, horrek ateratzen ditu gizakiak naturazko egoeratik eta gizarte zibilean kokatzen.
 - **Montesquieu** baroia (1689-1755)
 - Botereen banaketa, Locke-rengandik hurbil
 - Locke-rekin zor

- Erlijio tolerantzia
- Askatasunaren helburua
- Zoriontasuna, hiritar sentsuarekin
- Testu bat:
 - Montesquieu baroia *Legeen* (1748):
 - Estatu bakoitzean hiru botere daude [...]:
Lehenaren bidez, printzeak edo magistratuak legeak egiten ditu aldi baterako edo betiko, eta egindakoak zuzentzen edo indargabetzen ditu. Bigarrenaren bidez, bakea edo gerra egiten du, enbaxadak bidali edo jaso, segurtasuna ezarri eta inbasioei aurre egiteko neurriak hartu. Hirugarrenaren bidez, delituak zigortu edo partikularren arteko gorabeherak epaitzen ditu. Azken horri epaitzeko boterea deritzo, eta besteari, estatuaren botere betearazlea, besterik gabe [...].
 - **Voltaire** (1694-1778)
 - Fanatismo, intolerantzia eta erlijio-sineskerien etsaia izan zen.
 - 1753. urtean Eliza katolikoak Voltaire-ren lanak kondenatu zituen.
 - Ideia hauek bere lanetan agertzen dira: *Tolerantziari buruzko tratatua* (1763) eta *Hiztegi filosofikoa* (1764).
 - Bietan, arrazoi ilustratua defendatzen zen, fanatismo eta ezjakintasunaren aurka.
 - Jean-Jacques **Rousseau** (1712-1778)
 - Herria “Borondate orokorrean” adierazten eta berresten da.
 - “Borondate orokorra” kontutan hartuz, legeak sortuko dira.
 - Izan ere, subiranotasun politikoaren jatorri bakarra herrian dago.

2. IRAULTZA LIBERALAK

Estatu Batuetako Independentzia eta Frantziako Iraultza.


- Sarrera:
 - Atlantikoaren bi aldeetan XVIII. eta XIX. mendeetan gertatutako zenbait iraultza politikok ezarri zituzten ideologia eta sistema politiko garaikideen oinarriak.
 - Bi izan ziren lortu nahi izaten ziren idealak:
 - Era guztietako askatasuna lortzea -ekonomikoa, politikoa, ideologikoa, nazionala- ,
 - Pertsona guztientzako berdintasuna lortzea, talde eta estamentu bakar batzuk askatasunean bizi zirelako eta pribilegioetan oinarritutako aristokraziaren menpean egon ondoren.
 - Frantziako Iraultzaren garaitik aurrera, batera joan dira:
 - Askatasunaren aldeko borroka eta
 - Berdintasunaren aldekoa
 - Borroka bikoitz horren ondorioa izan zen HIRITARTASUN kontzeptua sortzea, baina motel samar garatu zen XIX. mendean.
 - Hiritartasunaren arloan egindako lorpenak HIRU FASETAN gertatu ziren:
 - 1. Berdintasun zibila: norbanakoaren eskubideak (pentsatzekoa, adieraztekoa, elkartzekoa, ...).
 - 2. Berdintasun politikoa, XIX. mendean zehar: hiritarren eskubide politikoak, bereziki hauteskunde-eskubideak.
 - 3. Berdintasun soziala, XX. mendeko ongizate-estatuaren lorpenetariko bat.
 - Europan, XIX. mendearen amaieran MONARKIAK ziren nagusi eta ez sistema liberalak.
 - 1870.etik Gerra Handia piztu arte, politika demokratikoak asko aurreratu zuen.
 - Bigarren iraultza industrialak eragin handia izan zuen prozesu honetan.
 - 1870 Bigarren iraultza industrialarekin batera, zabaldu egin ziren politikan jarduteko legitimotasunari eusten dioten oinarri sozialak eta poliki-poliki, liberalismo moderatua (errolda sufragio edo parte-hartze mugatua) jarduera demokratikoagoetara igarotzen hasi zen.
 - Hirietako klase ertaina handitu zen, osatzen zuten:
 - Lantegietan lan egiten zuten enplegatuak.
 - Bulegoko enplegatuak: bankuetan, postetxetan, ...
 - Emakumeak: telefonistak, idazkariak, andereñoak, ...
 - Hirietako klase ertainak gero eta indartsuagoak izan ziren eta sistema politikoan integratzera pasa ziren.
 - DEMOKRATIZATZE-PROZESU horren adierazle nabarmenak:
 - Boto-eskubidea, gizonezkoa eta emakumezkoa.
 - Lehenengo alderdi politiko handiak.
 - Mugimendu politiko eta sozialak: sozialismoa, feminismoa, sindikalismoa, etab.
 - “Estatu soziala” eraikitzeke lehenengo erabakiak, esate baterako, 1870. urtetik Bismarcken Alemanian hartutakoak (edadetuei, langabetuei, gaixoei laguntzak).
 - Sistema demokratikoaren irudia aurrerago.
- Zuzendide-estatua:
 - definizioa
 - Bi Zuzendide-estatu ezberdinu behar ditugu: forma aldetik eta eduki aldetik.
 - 1. Forma aldetik, boterea legeak emandakoa da eta legearen arabera aplikatzen da. Kasu honetan estatu autoritarioak ere sartzen dira, hauek bere sistema juridikoa dutelako eta jarraitzen diotelako.

- 2. Bigarren kasuan, legearen edukiak kontuan hartu behar ditugu, eta legearen eduki horiek boterea mugatzen dute. Estatuaren arauak eta estatu honen agintarien jarduerak, arau horiek aplikatzen dituztenean, giza-eskubideak errespetatu behar dituzte. Zuzenbide-estaturantzeko prozesua XVIII. mendean hasi zen.
- Sorrera.
 - Zuzenbide-estatu absolutismoaren amaieran sortu zen. Alde batetik, burgesiak botere ekonomikoa lortu ondoren, botere politikoa eskatu zuen. Beste aldetik, gizartearen eta Estatuaren kontzeptuaren oinarriak aldatzeko prozesua hasi zen.
 - Teorian, Zuzenbide-estatu estatu absolutistari aurre egiteko sortu zen, estatu absolutistaren kontra jokatzen. Estatu absolutistan, boterea zeukatenak “absolutuak” ziren, hau da, botere nagusirik gabekoak ziren.
- Zuzenbide-estatuaren aitzindaria XVII.mendeko konstituzio ingelesa izan zela esan daiteke. Estuadoen absolutismoaren kontrako iraultza irabazi ondoren, sortutako dokumentu berrietan (esate baterako, 1689. urteko Bill of Rights edo “Acta de Establecimiento”), herritarren oinarriko eskubideak eta Parlamentuaren nagusitasuna onartu ziren.
- Zuzenbide-estatuaren aldarrikapena bi iraultzaren bidez lortu zen XVIII. mendean: Estatu Batuetako Independentzia eta Frantziako Iraultza.
- 1689. urtearen ondorengoko sistema politiko ingelesa.



- 1. Aintzinako Erregimenaren aurkako liberalismo politikoa Printzipioak:
 - Monarkia absolutuetako “menpeko” kontzeptuaren orde, “hiritarra” erabiltzea.
 - Askatasunaren kontzeptu unibertsalaren defentsa, bai politikan bai ekonomian. Arlo ekonomikoan, gremioak boterea indargabetu eta jabetza-eskubideen defentsa.
 - Subiranotasun jatorria ez dator Jainkoarengandik, herritik edo naziotik baino.
 - Konstituzioa
 - Funtsezko printzipio batean biltzen da: botere politikoa legearen nagusitasunaren arabera erabili behar da, hau da, konstituzio baten arabera.
 - Konstituzioak boterearen erabilera kontrolatzen du.
 - Hori ez da posible botere-banaketa egokirik gabe => kontrola eta oreka.
 - Konstituzioek printzipio hauen adierazpen politikoak hartzen dituzte.
 - Konstituzioen testuetan, giza-eskubideen deklarazioa biltzen da; horren bi adibide dira 1787. urteko Estatu Batuetako konstituzioa eta Frantziako 1791. urtekoa.

- Horrez gain, liberalismoak antolaketa politiko berria ekarri zuen:
 - estatu nazionalak sortzea,
 - hiritarren parte-hartzea, alderdi politikoen eta hauteskunde sistemen bitartez, eta
 - gero eta burokrazia handiago izango duten administrazioaren egitura zentralizatuak bultzatzea.
 - Esandako guztia funtsezko printzipio batean biltze da: botere politikoa legearen nagusitasunaren arabera erabili behar da, hau da, konstituzio baten arabera.
 - Eta boterearen erabilera hori ez da posible botere banaketa egokirik gabe, banaketa horri esker lortuko baita boterearen beraren kontrola eta oreka.
- Sistema politiko demokratikoa:
- Herritarren parte-hartzea.



- 2. Iraultza-mugimenduaren kausak
 - Sozial eta ekonomikoak:
 - Lurretik etorritako ondasuna gutxiren eskuetan
 - Herria miserian bizi
 - Gizarte estamentala, pribilegiatuen menpean
 - Burgesiak, botere politikorik gabe, erreformak eskatu
 - Ideologikoak:
 - XVIII. mendeko pentsalari ilustratuen ideiak
 - Erregeen botere absolutuaren kontra
 - Botere banaketaren alde
 - Herri-subiranotasuna
 - Askatasuna
 - Tolerantzia
 - Orduko egoera ekonomikoa:
 - Ekonomia larriagotu zen
 - Prezioak igo, soldatak ez
 - Uzta txarrak

- Nekazari-krisiak industriari eta merkataritzari eragin
- Ekoizpenaren murrizketa, langabezia eta negozioen porrota
- Orduko egoera politikoa:
 - Gastuen handitzea eta diru-sarrera urrien ondorioz, krisia
 - Burgesiak eta herriak ordaindutako zergak ez ziren izan nahikoak
 - Erreforma fiskala beharrezkoa zen
 - Noblezia aurka zegoen
 - Monarkek larderiazko neurriak ezarri zituzten
- 3. Ipar Amerikako Iraultza
 - Britainia Handiak 13 kolonia zituen Ipar Amerikako ekialdeko kostaldean. Kolonia hauen biztanleek, 1776.ko uztailaren 4an, independentzia aldarrikatu zuten eta gerra hasi zuten.
 - Horren ondorioz, herri berri bat sortu zen, Amerikako Estatu Batuak.
 - Gerrara arte, kolonietan autogobernua zen nagusi, autonomiaz bizi ziren. Hala ere, merkataritza arautegiek Britainia Handiari mesede egiten zioten.
 - Britainiar koroak gobernadoreak izendatu zituen eta hauek herritar asanbladekin gobernatu zuten.
 - Asanblada hauetan parte hartzeko kolonoek idatzi eta irakurtzen jakin behar zuten. Londresek ez zuen kontrol finkorik ezarri.
 - Gizarte koloniala
 - Gizarte koloniala osatzen zuten:
 - Lur-jabe aristokrazia, hegoaldean bizi zena, eta Erresumaren zerbitzurako funtzionario militar eta zibilak; hauek Londreseko gobernuaren aldekoak ziren.
 - Erdiko klasean, burokratak, merkatariak, jabe txikiak zeuden, hauek poliki-poliki independentzia-politikaren aldeko bidea hartu zuten.
 - Gainerakoak, kolono txiro, emigranteak, nekazariak eta ehiztariak ziren; hauetariko askoren asmoa, lurraldeak konkistatzea zen;
 - eta esklaboak, iheslariak eta kondenatuak osatutako gutxiengoa zegoen.
 - Beraz, ezaugarria zen aniztasuna
 - 3.1. Independentziaren kausak
 - Independentziaren kausak honako hauek izan ziren: ekonomikoak, politikoak eta, azkenean, bai eta nazionalak ere.
 - Atarikoak:
 - Britainia Handiaren eta Frantziaren arteko etsaitasuna, bai merkataritzan bai Ipar Amerikako kolonizazioan.
 - Zazpi Urteetako Gerra (1756-1763): Europan eta kolonietan.
 - Europan egonkortasuna galdu zen.
 - Europan bi fronte antolatu ziren:
 - Frantzia-Austria-Erussia
 - Britainia Handia-Hannover-Prusia
 - Baina Europako potentzia handien arteko gerraren ondorioz (Frantzia, Britainia Handia, Austria eta Prusia), Europako metropolien eta kolonien arteko harremanak sakonki kaltetu ziren.
 - Hortaz, gerra honetako gatazkak Europan eta kolonietan gertatu ziren (Ipar Amerikan, Indian eta Afrikan).
 - Ipar Amerikan: Britainia Handiaren eta Frantziaren arteko gerra koloniala.
 - Immigrazioa areagotzearen ondorioz, britainiar kolonien presioa nabaritzen hasi zen frantziar lurraldeetan. Frantziar lurraldeetan biztanle gutxi bizi ziren,

- baina ondo babestuta zeuden, fortinen bidez.
- Liskar armatuetatik gerrara: Britainiarrek frantsesak garaitu zituzten. Gerra garaitzean, Britainia Handiak bere nagusitasuna Ipar Amerikan ezarri zuen, honela geratu zen islaturik Pariseko Itunean (1763).
 - Frantziak ez zituen Ternua arrantzarako eskubideak galdu eta Karibearen bere koloniarik garrantzitsuena, *La Española* delakoa, mantendu zuen.
 - Honek munduan saltzen zen azukrearen erdia ematen zuen, eta Afrika eta Antillasekiko frantziar merkataritza gorantz ari zen.
 - Frantziak Britainia Handiari: Kanada, Cap Breton Irla (Kanada) eta Senegal (Afrikan).
 - Espainiak Britainia Handiari: La Florida.
 - Frantziak Espainiari: Louisiana.
 - Ondorioak
 - Britainia Handiak gerraren gastuak kolonoei beraiei zordundu nahi zizkien, zergen bidez.
 - Aldi berean, mendebaldeko lurren kolonizazioaren hedatzea eta fabrika berriak sortzea debekatu zituen.
 - Eta azkenean, kolonoei metropoliarekiko merkataritza eskusiboa inposatu zien. Frantziar Antillasekin salerosteko askatasuna galtzea esan nahi zuena.
 - Britainia Handiak neurriak hartu zituen kolonietako autonomiaren kontra. “Erregearen lagunak” talde parlamentarioak politika zentralista hau bultzatu zuen.
 - Britainia Handiak kolonoei inposatutako legeak:
 - 1764.urteko *Sugar Act* (Ley de Melazas)
 - 1765.urteko *Stamp Act* (Ley del Timbre), lege horrek kargak ezartzen zizkien agiriei eta argitalpenei. Karga horiek ezezagunak ziren Amerikan.
 - Hauekin, metropoliak bere egoera ekonomikoa hobetzea espero zuen.
 - Aldi berean, lege hauek betetzeko neurri zorrotzak ezarri zituen.
 - Kolonoek legeei uko egin zieten, 1689.urteko Ingalaterrako eskubideen deklarazioaren artikulua bat oinarri hartuta. Artikulu honen arabera, koroak, Parlamentuaren onespenez gabe zergak ordaintzeko eskaera egitea legearen kontrakoa zen. Ipar Amerikako kolonoek Britainia Handiko Parlamentuan parte hartzen ez zutenez, zergarik ez zutela ordaindu behar uste zuten: “Ordezkaritzarik gabe, zergarik ez” (“No taxation without representation”), leloa defendatu zuten kolonoek. Legea ezeztatua izan zen arren, beste zerga berriak onartu zituzten -beira eta berunaren gaineko zergak.
 - Hauek produktu ingelesaren kontrako boikota eragin zuten Protestak hasi ziren, eta merkataritza koloniala gelditu zen. Britainiar Parlamentuak zerga bereziak atzera bota zituen berriro. Baina horren ordez, kolonietan bere legeak ezartzeko eskubidea onartu zuen. Soilik tearen gaineko zerga mantendu zuen eta tea saltzeko monopolioa Ekialdeko Indietako Konpainiari eman zion. Horrek kalte egin zien kolonietako merkatariei. Konpainiak ez zituen zergak ordaintzen

metropoliko portuetan, bai ordea Ameriketako kolonietakoetan.

- Ipar Amerikara immigrazioa areagotzea.
- 3.2. “Txinparta” (1773)
 - Kolonoek 1773.urtean Tearen Matxinada Bostonen antolatu zuten. Konpainiak hiri horretako portuan zeuden itsasontzi batzuetan zeukan te kargamentua itsasora botazuten.
 - Gobernuak portua itxi eta izugarrizko isuna jarri zien Massachusettseko biztanle guztiei.
 - Hau eta beste batzuk, “Leyes Intolerables” o “Leyes Punitivas” (Intolerable Acts edo Punitive Acts) izenarekin ezagutzen ditugu.
 - 1774. urtetik Britainiar Parlamentuak emandako legeak Amerikako hamahiru kolonien nahigabeari aurre egiteko ezarri ziren.
 - 1774. ko Lehenengo Kongresua
 - 1774.urtean kolonietako ordezkariak Filadelfia bildu ziren, kongresu bat antolatuz.
 - Eskubide eta Bidegabekeriaren adierazpen bat, eta erregearentzako eskaera bat sinatu zituzten.
 - Dokumentu hauetan, Parlamentuak kanpoko merkataritza arautzeko eskubidea izatea baieztatzen zen, baita koloniek berezko arazoak konpontzeko eskubidea defendatu ere -britainiar gobernuak parte hartzerik gabe-.
- 3.3. Gerra eta II. Kongresua (1775)
 - 1775.urtean liskar armatuak hasi ondoren, II. Kongresua antolatu zen.
 - Honek ekintza armatua zuzendu zuen eta independentziaren aldeko jarrera hartu zuen.
 - Kongresuak gobernu moduan jokatu zuen: armadaren antolaketa, estrategien zuzenketa, diplomazialarien izendapena eta itunen sinadura burutu zituen.
 - 1776. ko Independentziaren aitortpena
 - 1776.ko urarrilaren 10ean Th. Paine-ren testua argitaratu zen, *Common sense* (“El sentido común”). Independentziari bultzada handia eman eman zion, kolono guztiak ziur ez zeudelako.
 - 1776.ko ekainaren 12an “Virginiako Eskubideen Adierazpena” ezarri zen, historia garaikidean, lehenengo giza-eskubideen adierazpena bezala egiaztaturik. 1689.ko “Bill of Rights” adierazpen ingelesean oinarritzen da.
 - Adierazpen honek beste koloniei adre ematen zien independentzia lortzeko.
 - Eskubideen adierazpenak gizaki guztiak berdinak eta libreak direla aldarrikatzen du, bai eta berezko eskubide jakin batzuk dituztela era.
 - Eskubideen adierazpenak gizaki guztiak berdinak eta
 - Hau da Frantziako Iraultzak 1789.urtean emandako Gizonaren eta Hiritarren Eskubideen Adierazpenaren eta 1791.ko Estatu Batuetako Eskubideen Gutunaren aitzindaria.
 - 1776.ko uztailaren 4an, Amerikako Estatu Batuen Independentzia aldarrikatu zen, Thomas Jeffersonek idatzitako adierazpen baten bidez.
 - Adierazpenean, askatasuna, norbanakoen berdintasuna, tiraniaren aurka matxinatzeko eskubidea eta botere-banaketa defendatzen ziren.
 - Testu hau Zuzenbide Naturalaren printzipioak hartzen dituen lehenengo dokumentu politikoa da, hau da, askatasuna, zorientasunaren bilaketa eta gobernatuen onarpenarekiko gobernuaren. Beraz, XVII. mendean Lockek azaldutako printzipioak.

- Thomas Jefferson (1743-1826)
 - Pentsaera ilustratua.
 - Estatu Batuetako fundatzailea: askatasuna, demokrazia eta britainiar inperialismoaren aurka.
 - EE.BB. etan gobernu errepublikanoaren aldekoa zen.
 - Virginiako ordezkaria 1769- 1776.
 - II. Kongresu Virginiako ordezkaria 1775-1776.
 - Konfederakundean Virginiako ordezkaria, 1783-1784.
 - Frantziar Estatu Batuetako enbaxadore, 1785-1789.
 - Estatu Batuetako Estatu-Idazkaria, 1789-1793.
 - Estatu Batuetako Lehendakariordea 1797-1801.
 - Estatu Batuetako Lehendakaria 1801-1809.
- 3.4. Gerraren bilakaera (1775-1783)
 - Independentzia gerrak 1775. tik 1783. ra bitartean iraun zuen. Lehenengo fasean (1775-1777), G. Washington-ek zuzendutako gerra zaila izan zen amerikarrentzat. Frantzia eta Espainiaren laguntzari, amerikar kolonoen armada gero eta profesionalagoa izateari eta biztanleriaren parte hartzeari esker, azkenean metropolia garaitzea lortu zen. Parte hartze horrek kolonien matxinada Europaren arazo bihurtu zen. Frantziaren laguntza -arma, diru eta soldadu boluntario gisan- hasieratik heldu zen. Honela, kolonoek Saratoga batailena britainiarrak garaitu zituzten (1777). Geroago, 1779. urtean, Espainia gerran sartu zen. 1780. urtean merkataritza babesteko Liga neutrala antolatu zen: Errusiako inperioa, Danimarka, Suedia, Prusia, Austria eta Portugal. Honela, oreka amaitu zen eta Britainia Handia bakarrik geratu zen. Azkenik, Yorktown Batailan garaitua izan zen (1781). 1783. urteko Versaillesko Bakearen bidez, Britainia Handiak Estatu Batuen independentzia egiaztatzen zuen. Britainia Handiak Kanada mantendu zuen, baina Antilleseko Tobago irlak eta Santa Lucia Frantziari eman zizkion. Espainiak Florida eta Menorca berreskuratu zituen.
 - George Washington (1732-1799)
 - Independentzia gerra: garaipenaren liderra
 - Estatu Batuetako Lehenengo lehendakaria (1789)
 - Bakearen alde: hamarkada baketsua Britainia Handiarekin (1795)
- 3.5. Antolaketa politikoa
 - Independentzia gerran ziharduten bitartean, antolaketa politiko berria eratzen ari ziren. Antzinako Erregimeneko gizartea deuseztatu beharrik ez izana, beraz, politika demokratikoa azkarrago ezarri zen. Hala ere, Europan tradizio aristokratikoaren jarraitzaile finagoa zenez, gizartearen barneko distantziak oso handiak ziren. Gatazka amaitzean, hamahiruetako bakoitza estatu independente bat zen. Zalantzan zegoen ea botere handiko Gobernu zentral bat osatuko zen ala estatu bakoitzak bere gobernu propioa antolatuko zen, hau da, errepublika bat ala hamahiru errepublika. 1776. an Kongresua konfederakunde plan bat idazten hasi zen. 1781.ean emaitzak prest zeuden artikulua gisan. Artikulu hauen arabera, Ameriketako errepubliken elkarte bat sortu zen, eta estatu bakoitzak bere

subiranotasuna, askatasuna eta independentzia mantentzen zituen, haien arteko gobernu bat, edo gobernu komun bat sortzeko aukera adierazten zuten arren. Gerra amaitzean, formula honek ez zuen balio sortutako arazoei aurre egiteko, adibidez, lurralde antolaketa, krisi ekonomikoa eta nazioarteko erlazioak.

- Konfederakunde Plan berria osatzea proposatu zen, guztientzako konstituzio bat prestatzeko eta botere berriak Kongresuari emateko.

Zalantza handia agertzen zen: estatu bakoitza bere subiranotasunaren zati bati uko egiteko prest egongo litzateke?

Berrogeita hamabost ordezkariak, 1787.an Filadelfian bilduta, konstituzioaren erreforma prestatu zuten.

1789.ko martxoan sartu zen indarrean eta oraindik indarrean jarraitzen du, zenbait zuzenketa egin bazaizkio ere, enmienda gisan.

- Konstituzio hura, liberalismo politiko garaikidearen printzipioen lehenengo adierazpen praktikoa izan zen.

Printzipio horiek, funtsean, bitan bana daitezke:

- Botere federalaren antolaketa -batez ere Ameriketako jokabide politikoaren ezaugarria-
- Botere-banaketaren benetako adierazpena, toki gehiagotara hedatu zena.

Estatu bakoitzak bere autonomia mantentzen du, baina bere gaitetiko botere federala egiaztatzen du. Batasuna sendotzeko, Gobernu zentralak Estatu guztien hiritarren gaitetiko autoritatea dauka eta Estatu Batuetako lurralde guztiek legeak eta itun federalak bete behar dituzte.


Baina Estatuaren subiranotasuna babestua geratzen da.

3.6. Estatu Batuetako konstituzioa (1787)

- Estatu Batuetako konstituzioak bermatzen du:
 - Herriaren subiranotasuna (Th. Jeffersonek ezarritako oinarritzko eskubideak).
 - Boterearen banaketa.
 - Kargu publikoak hautatu beharra.
 - Elizaren eta Estatuaren arteko banantzea.
- Lehenengo oinarritzko legea idatzirik.
- Ezaugarriak:
 - Boterearen banaketa (Locke eta Montesquieu)
 - Elkarren arteko kontrol-sistema: hiritarra bere Estatuaren menpekoa da, bai eta Estatu federalarena ere.
 - Gobernu federalaren konpetentziak: defentsa, dirua, kanpoko merkataritza, nazioarteko politika.
 - Estatu bakoitzaren konpetentziak: garraiobideak, justizia, polizia, hezkuntza, etab.

- Estatu Batuetako sistema

- Botere legegilea
 - Botere legegilea bi ganberako parlamentu baten esku zegoen, Senatuaren (bi kide estatuko) eta Ordezkarien Ganberaren esku (Estatu bakoitzaren ordezkari kopurua proportzionala zen biztanleria kontuan hartuz).



Ordezkarien Ganberak Estatu Batuetako herri osoa pertsonifikatzen zuen; Senatuak, berriz, Estatu bakoitzaren interesak defendatzen zituen, eta ganberan guztiak berdinak ziren.

Parlamentuak zergak eta aurrekontuak onartzen zituen, legeen ekimena haren esku zegoen, eta gerra eta bakea deklaratzeko zituen.

- Botere betearazlea
 - Botere betearazlearen buru lehendakari bat zegoen, gizonak soilik aukeratua (soilik zuriek) lau urterako, zeharkako hauteskundeetan.
 - Estatuaren buruzagia.
 - Lehendakariak izendatzen zituen gobernuko kideak eta Estatu-idazkariak.
 - Armadaren aginte gorena haren esku zegoen eta beto-eskubidea zeukan.
 - Ordezkarien Ganberak eta Auzitegi Gorenak kontrolatzen dute.
- Botere judiziala
 - Botere judizialaren burua Auzitegi Gorena zen.
 - Lehendakariak izendatuko 6 kide zituen.
 - Haien lana legeen konstituzionaltasunaz arduratzea zen.
 - Botere federalaren eta Estatu bakoitzaren arteko gatazkak ezagutzen du.
 - Botere legegilea kontrolatzen du.
- Lehenengo konstituzio demokratikoa
 - Beraz, Independentzia gerrarekin batera, iraultza politikoa eta mugimendu soziala gertatu ziren.

Ipar Ameriketako kolonoak metropoliarengandik banatzearen aitzindariak izan ziren eta askatasunaren printzipioa lehenengoz onartzen zuen konstituzio bat ezarri zuten.

Nahiz eta Estatu Batuak lehenengo konstituzio demokratikoa ezartzea lortu, demokrazia urteetan zehar finkatu zen.

Hasieran, berdintasuna eskubide zibilei lotuago egon zen, funtzio publikoei baino.

Kargu publikoak, buru zen klasearen esku geratu ziren;merkatari aberatsek eta lur-jabe handiek buru zen klase“berri” hau osatu zuten.

Egia esan, hau gizarte kolonialarena bezalakoa zen, zenbait salbuespenekin. Honela lehenengo lehendakaria, George Washington, Virginiako lur-jabe aberatsa izan zen, eta militar ospetsua, askatasun publikoak errespetatu zituen arren.

Beste aldetik, hiritartasun zibila iraultza-garaiko helburua izan bazen, hiritartasun politikoa, aldiz, XIX. eta XX. mendeetan garatu zen prozesu baten ondorioa izan zen.

Estatu Batuetako demokrazian, oso goiz onartu zen gizonezkoen sufragio unibertsala, ia-ia mende bat lehenago Mendebaldean baino.

Hala ere, gutxika-gutxika boto eskubidea zabaldu zen. Emakumeak 1920. urtean inguruan bozkatzen hasi ziren eta hiritar beltzak 1965. urtean.


Hasierako federalisten eta antifederalisten arteko borroka indarra galduz joan zen, eta 1815. urterako, Estatu Batuetako sistema politikoa erabat sendotuta zegoen, erakunde egonkorrak zituen eta lehenengo alderdi politikoak lanean hasita zeuden.
- 4. Frantziako Iraultza.
 - Frantziako Iraultza oso prozesu ezberdina izan zen. Frantzian, Antzinako Erregimeneko gizarte eraldatu nahi zuten.

- Gizarte horren egitura konplexua zen: estamentuen inguruan antolatuta zegoen eta, egituratze horretan, izaera aristokratikodun balioek kulturen pisu handia izaten jarraitzen zuten.
- Frantziako Iraultzaren eragina ez zen mugatu XIX. mendeko lehenengo erdian gertatutako uholde iraultzailetara; besteak beste Pariseko Komunari (1871), 1917ko Errusiako Iraultzan edo XX. mendean Europatik kanpo gertatutako prozesu iraultzaile askotan.
- 4.1. Interpretazio ugari
 - Frantziako Iraultzaren arrazoen interpretazio ugari izan dira.
 - Korrante baten arabera, historialari liberalek eta marxistek defendatzen dutena (Marx eta Engels), burgesiak ezin zuen gehiago garatzen jarraitu Antzinako Erregimenaren mugen barruan.
Beraz, Iraultza burgesiaren arrakastaren fruitua izan zen. “Ondasunen banaketa berriak boterearen banaketa berria eskatzen du” (A. Barnave).
 - Historiografia erromantikoaren inguruan osatutako korrantea sortu zen. Honetan, G. Lefèbvre kokatzen da.
 - Bigarren interpretazioan, herrimailako klaseak gero eta pobregokoak ziren, eta azken hamarkadetan izandako biziraupen-krisiek piztu zuten iraultza.
Beraz, klase herritarrak ziren protagonista nagusia (artisaunen auzoetako *sans-culottes*-ak).
 - Eta hori aintzat hartuta, Frantziako Iraultza, iraultza herritartzat eta sozialtzat har dezakegu.
 - E. Labrousse historialaria bi jarrera horien sintesia egiten saiatu zen : burgesia aberastea eta herri-mailako klaseak txirotzea.
Interpretazio hori onartuena bihurtu da.
 - Beste batzuk agertu arren:
 - Atlantiko aldeko iraultza gisa azaltzen duena, eta honetan, frantziarra, urturik geratuko zen.
 - Beste batzuen iritziz, Frantziako iraultzak historian izan zezakeen garrantzia uko egiten dio.
- 4.2 Iraultzaren Faseak.
 - Lehenengo fasea => 1789.etik 1791ra-
 - Sasoi horretan jo zuten hondoa Antzinako Erregimeneko gizarteko eta politiko egiturek, eta legitimitate politiko berria eratu zen, 1791. urteko konstituzioan islatu dena.
 - 1789. urtean feudalismoa indargabetu zen eta Gizakiaren Eskubideen Adierazpena onartu zen.
 - 1790. urtean Biltzar Konstituziogileak Kleroarentzako Konstituzio Zibila onartu zen.
 - Hura izan zen Eliza eta Estatua banantzeko lehenengo pausoa.
 - 1791. urtean Konstituzioa onartu zen, Europako lehenengoa.
 - Sistema politiko berri baten oinarriak: botere banaketa eta izaera konstituzionaleko monarkia bat aurreikustea.
 - Frantzia konstituzioa (1791)
 - Oinarriak:
 - Monarkia hori botere legegilearen menpean egongo zen, baina legeak proposatzeko pribilegio mantentzen du, bai eta botere betearazlearen jardura kontrolatzeko ere.

- XIX. mendean zehar Frantzia aldaketek jarraitu zuten.
- Ideia liberalak ez ziren finkatu eta, azken finean, sistema politiko demokratikoa XX. mendean ezarri zen, Lehenengo Mundu Gerraren inguruan, III. Errepublikan zehar.
- Iraultzaren ondoren, Frantziako Estatu liberal berriak administrazio zentralizatu eta lurralde osoan legeen uniformetasuna ezarri zituen.
- Iraultzaren ondorioz, Iparraldeko Euskal Herriak bere Foruak galdu zituen XVIII. mendeko bukaeran.
- Espainiako iraultza liberalak Frantziaren ereduari jarraitu zion.
- 5. Napoleonen garaia (1799-1815)
 - Honela Napoleonen garai hasi zen. Oso pertsona kontraesankorra izan zen.
 - Bere inperioaren osaketa iraultzaren ideien hedapenari lotuta egon zen.
 - Napoleonen gerrak sistema politiko ezberdinen arteko gerrak izan ziren.
 - Gerra izan zen iraultza hedatzeko bideetako bat.
 - Iberiar penintsulan, Italiako iparraldean, Holandan eta Alemaniako mendebaldeko eskualdeetan, aldaketak gertatu ziren erakundeetan, Napoleonen kanpainen ondorioz.
 - Aldaketak:
 - Feudalismoa eta morrontza ezabatu ziren.
 - Kultura askatasuna ezarri, Espainian salbu.
 - Kodeak ezarri (Napoleonen Kodea, 1804).
 - Konstituzioak idatzi eta liberalismoaren beraren lehenengo erakundeak sortu: batzar politikoak eta horien aurrean erantzule izango ziren gobernuak.
 - Espainian adibidea daukagu, gogorra izan zen Napoleonen kontrako erantzuna, baina gerrak bide eman zien erreformei. Cadizen liberalak elkartu ziren eta konstituzio berria sortu zuten, printzipio liberalak ezarriz.
 - 5.1. Napoleonen porrota
 - 1815. urtean Napoleonen porrotak bidea ireki zuen Europa guztian Antzinako Erregimenetik hurbileko jarrera politikoetara itzultzeko.
 - Frantzia monarkia berrezarri zen (Luis XVIII 1815-1824).
 - Antzinako Erregimenaren erabateko berrezarkuntza ez zen posible. Iraultzaren lorpen asko zabaltzen hasi ziren.
 - 5.2. Vienako Kongresua (1815)
 - 1815. urtean Vienako Kongresua ospatu zen, Frantziako Iraultzarekin hasi zen prozesuan zehar sortutako arazoak konpontzeko.
 - Helburua: Europako mugak berrezarri eta Antzinako Erregimenaren ideologia eta sistema politikoak berrantolatzea zen. hau da, Frantziako Iraultza baino lehenagoko egoerara itzuli.
 - Akordioen printzipioak honakoak izan ziren:
 - Monarkiaren legitimitatea eta
 - Oreka, Europan oreka egonkoraren bila.
 - Lehenengo Mundu Gerrara arte indarrean egon ziren, hala ere, bakea lortu zen absolutismoa ezartzearen bidez.
 - Beste aldetik, Europako diplomaziaren funtsak ezarri ziren.
 - Bi zutabe zituen Nazioarteko politika:
 - Kontinenteko oreka arriskuan zegoenean, bere esku hartzeko gaitasuna (“kongresuen Europa”). Honela gertatu zen Espainian, 1823. urtean “Cien Mil Hijos de San Luis” izeneko armada bidali zenean, iraultzaren kontra borrokatzeko eta Fernando VII.a errege absolutua berrezartzeko.

- Erljio aliantzaren osaketa, Aliantza Santua izenekoa, Prusia, Errusia eta Austriako monarkiek osaturikoa zen, hala ere, bere eragina eskasa izan zen.
- 6. Europako Iraultza Liberalak.
 - Nahiz eta 1815. urtetik aurrera, Europan ezarritako gobernu legitimistak ideia liberalak itotzen saiatu liberalismoaren printzipioak abian jarri ziren. 1820.urteko iraultzarik garrantzitsuena izan arren, batez ere Espainian eta Italian, 1830.ekoa eta 1848.koa izan ziren XIX. mendearen lehenengo erdiko ziklo iraultzaile nagusiak. Biak Frantzian gertatutakoak, baina eragin handikoak kontinente osoan, Ingalaterran salbu, alde batean geratu baitzen. 1830.eko iraultzaren ondorioak Herbehereetan baino ez ziren islatu. Belgikak bere independentzia 1831. urtean lortu zuen. Eragina Espainian eta Portugalen ere nabarmendu zen, 1833.urteik aurrera bi erresumek gobernu liberalak berreskuratu zituzten. 1848.ko iraultzak Parisen hasi zen, 1830.ekoa bezala. 1848. urteko iraultzak:“herrien udaberria”:
 - Otsailean hasi zen, Luis Felipe I.a abdikatu zuen eta behin behineko gobernu bat ezarri zen. Errepublikano kontserbadoreek, erradikalek eta sozialistek osatu zuten. Iraultzan, eskubide politikoak (sufragio unibertsala) eskatu ziren, bai eta gizarte-eskakizunak ere. Erreformatik lortu ziren “Errepublika sozial eta demokratiko” honetan: gizonezkoen sufragio unibertsala, grebaren eskubidea, esklabotzaren abolizioa, hamar orduko lanaldia. Ekainean, berriro kekek hasi ziren, baina bortizki kontrolatu eta erreprimatu ziren, errepublika autoritarioa ezarri. Frantziako II. Errepublika gutxi iraun zuen (1848-1852), baina oso lorpen sakonak lortu zituen. Eredu modura gizonezkoaren sufragio unibertsala (Espainian 1890, Austriako 1907 eta Italian 1914).
 - 1848. urteko mugimendu iraultzaileek Frantziatik kanpo utzi zuten aztarnarik handiena. Urte horretan, erdialdeko Europako hiri nagusietan (Berlin, Viena, Praga, Milan, Turin eta Erroman) altxamenduak eta mugimendu iraultzaileak gertatu ziren. Guztiek izan zuten helburu berbera, liberalismoaren oinarriko printzipioak eskuratzea: askatasun indibidualak, herria benetan ordezkatzeko zuten gobernuak izatea eta eskubide nazionalak errespetatzea, edo behintzat, aintzat hartzea. Alemaniako herrialdeetan eta Italiako estatuetan, 1848.ko iraultzen eragina erabat lotuta egon zen Nazioaren eraikuntza prozesuari.
 - Eskema gaiaren amaieran
- 7. Hausmann-en Plan berria (1852)
 - 1852. urtean, Napoleon III.ak Paris berritu eta modernizatu nahi zituen.
 - Hiri zaharra zen, Erdi Aroko egitura mantentzen zuen: kale estuak, eraikinen pilaketa, zaborrak, ur zikinak, etab. Guzti horrek zirkulazioaren eta osasunaren arazoak ekarri zituen.
 - Pariseko arazo larriak:
 - Biztanleriaren hazkundera
 - Izurrien eragina, batez ere, pobrezian bizi zen biztanlerian.
 - Hirigintza higienikoaren beharra.
 - Zirkulazioaren hobekuntza, garraio berria hirian sartzen ari zen, trenak.
 - Erreformatik:

- Derrigorrezko desjabetzea onartu zen. Zuzenbide tradizionalaren arabera, jabetza pribatua mugarik gabeko eskubide bat zen, baina ez zen kontuan hartu.
- Paris zaharra suntsitu zuten eta bi hamarkadetan Paris munduko hiririk modernoena bihurtu zen: hiribide zabalak, lorategiak, eraikin berriei altuera uniforme eman zieten, etab.
- Zirkulazioaren eta osasunaren hobekuntzak lortu ziren, bai eta helburu politikoak ere.
 - Herri-mailako klaseak lekualdatu zituzten, hiriko zentrotik kanpoaldera.
 - Herri auzokoak suntsitu zituzten eta burgesiarentzako apartamentu-eraikinak sortu ziren.
 - Haussmannen planak pribilegiatuak poztu zituen, baina herri-mailako klaseek beren sustraiak eta erreferentzia-lekuak galtzea jasan zuten.
 - Plan berri honek matxinadak, altxamenduak eta barrikadak galarazi zituen, 1830. eta 1840. urteetan gertatu zen bezala. Barrikadak osatu ahal izan ziren kale estuei esker. Baina Paris berriko kale zabaletan eta hiribideetan ia-ia ezinezkoa izango zen. Kale zabal horiek tren geltokiekin lotuta zeuden, probintzietako tropak azkar mobilizatzeko.
- Erreforma horiei esker, 1871. urteko Pariseko komuna azkar kontrolatu eta erreprimitu zen (60 egun iraun zituen).



3. INDUSTRIALIZAZIOA

Iraultza, aldaketa eta hedapena.

- Mendebaldea
 - XVI. mendearen inguruan zibilizazio handiak, Islamiarra eta Txinatarra, irteerarik gabeko bidean sartu ziren.
 - Mendebaldea, ordean garai berean aurrea hartzen hasi zen eta XVIII. mendean sendotu zen haren lehen postua.
 - Orduantxe hasi zen iraultza industrialaren deritzogun prozesua, gizateriaren bizimodua etengabe aldatuko zuena.
 - Aldaketa-prozesu honen lehenengo fasea XVIII. mendearen erdian hasi zen, eta XX. mendean bizkortu zen.
- Aldaketa nagusiak
 - Aldaketa nagusiak prozesu horri lotuta hauek izan ziren:
 - Ekonomiaren egitura sakonki eraldatu zen eta bere ondorioak izan ziren: produktibitatearen hazkundea, bizi-kalitatearen aldaketak (hobekuntza, epe luzean) eta ondasunen eta salgaien ekoizpenean teknologia era zabalean aplikatzea.
 - Populazioa haztea, ehun urte inguruko epean, bikoiztu egin zen.
 - Ekonomia kapitalista sortzea Mendebaldeko Europan eta Ameriketako Estatu Batuetan.
 - Beste herriak gutxika-gutxika menperatzea.
 - XVIII. mendearen bukaeratik Lehenengo Mundu Gerrara arte, Europan eta Atlantikoaren inguruko mundu txikitxotik mundu globalizatura pasatu zuten, iraultza industrialaren ondorioz.
 - Iraultza Industrialak munduko herrialde guztiak gerturatu zituen (garraiobideen bitartez).
- Mundu ezaguna
 - Orain dela 200 urteko europarrentzat, ezezaguna zen planetaren zatirik handiena, edo esploratu gabea.
 - Kontinenteen arteko migrazioak, ordura arte, ez ziren jendetsuak, nahiz eta Amerikaren kolonizazioa gertatu.
 - Bestalde, komunikabideak traketsak eta motelak ziren.
 - Beraz, "mundu ezaguna" Europak eta inperio iberikoaren, frantsesaren, ingelesaren eta Holandakoaren menpeko koloniek osatzen zuten.
- XVIII. mendeko mundua:
 - Ekonomiaren zutabea nekazaritza zen. Baina nekazaritza ez zen berdina toki guztietan.
 - Nekazaritza nagusitzen zen ia beti eta biztanleak guztiak ez hiritarretan bizi ziren. Hiri bakar batzuk baino ez ziren nabarmen handiak, Londres edo Paris besteak beste.
 - Demografiaren arloan, XVIII. mendearen hasieran munduan 680 milioi biztanle zeuden, mendearen azkenetan, oster, 945 milioi ziren.
 - Kontzentrazio handiena Asian, batez ere Txinan, zegoen arren, bazeuden hutsune demografiko handiko guztiak, Ameriketako kasu.
 - Ameriketako, hazkunde handia izan zuen biztanleriak aro garaikidean.
- Iraultzaren aurreko garaia
 - XVIII. mendean Mendebaldeko Europan, ekonomia geldiro-geldiro dibertsifikatzen ari zen, nolabait industrializazio-prozesua prestatzen.
 - Ekonomiaren bi arlotan izan zen eraginkorra susperraldia:
 - Merkataritzan

- Distantzia handiko merkataritza
 - XVIII. mendeko merkataritzaren bultzakada distantzia handiko merkataritzan oinarritu zen.
 - Bi zutabe izan zituen:
 - 1. Alde batetik, Europaz kanpotik zetozen kontsumorako gaien edo luxuzko gaien trukea (espeziak, kafea, tea, azukrea).
Ameriketaraino doa merkataritzako ibilbide nagusia: Rio de la Platara, Brasilerā, Karibera eta britainiarren iparraldeko kolonietara. Ingelesen eta frantsesen nagusitasuna itsasoan inposatzen ari zen.
Lisboa eta Cadiz soilik Europa eta Amerikaren arteko birbanatzerako portuak.
 - 2. Bestalde, gero eta gehiago merkaturatzen ziren ondasun manufacturatuak.
Ondasun horiek, batzuetan, Indiatik etortzen ziren (indiano izeneko oihalak) eta beste batzuetan, Europako etxeetako ehungintza-industrian ekoiztakoak ziren (artilezko eta lihozko oihalak).
Garai horretan Ingalaterrak eta Frantziak zuten nagusitasuna merkataritzan.
XVIII. mendeko merkataritzaren garapenak industrializazioari bidea prestatzeaz gain, mende osoan zehar Europak munduan izango zuen nagusitasuna prestatzen ere lagundu zuen.
 -
 - Nekazaritzako ekonomia sendoaren sorreran.
 - Etxeko landa-industria
 - Iraultza Industrialaren aurreko garaian aipagarriena: Etxeko landa-industria sendoa agertzea.
 - Industria honek posible egin zituen:
 - Handiko merkataritzaren garapena.
 - Nekazaritzaren espezializazioa.
 - Industria honen ezaugarriak hiru ziren:
 - Landa eta etxe jarduera izatea: lan-prozesua etxean bertan edo elkarte txikietan garatzen zen, eta ez fabriketan.
 - Ehungintzan espezializatua izatea eta ekoizpena eskualdetik kanpo saltzeko bideratzea.
 - Bere antolaketa merkataritza-kapitalaren menpean izatea: kapital hori baitzen lehengaiez hornitzen duena eta gero merkaturatzeaz arduratzen da.
 - Industria hau inoiz ez da antolatzen hirietako gremioen bitartez, hauetatik kanpoan antolatzen da.
- Noiz?
 - Hasierak ez du data zehatzik.
 - Autoren batzuen ustez, 1760. urte inguruan hasi zen (data hori lurrun-makinaren asmakizunari lotuta dago), beste batzuen iritziz, geroago.
 - Garrantzitsuenak: aldaketen sakontasuna, lastertasuna baino.
 - Iraultza hitzaren esanahia: XVIII. mendearen erdialdetik aurrera ekonomiaren hazkundea bizkortu egin zen.
Horrekin batera, oso eraldaketa handia gertatu zen, ekoizpenaren antolaketan eta gizartearen egituran.
 - Hobsbawm-ek esan duen bezala, “neolitotik hona giza bizimoduak izan duen

transformaziorik funtsezkoena izan

- Zergatik Ingalaterran?
 - Oraindik erabat argitu gabe dago, iraultza industrialak zergatik gertatu zen Mendebaldeko Europan, hain zuzen, Ingalaterran.
 - Industrializazio-prozesua Ipar-mendebaldeko Europan hasi zen, munduko lehenengo eskualdea izan zen.
 - Aukera hori ez zuten izan Ekialdeko zenbait herrialdek, ez Txinak ez Japoniak.
 - Hainbat arrazoi
 - Hori azaltzeko hainbat arrazoi erabiltzen dira:
 - Teknikaren garapena: Europako mendebaldea hobeto prestatuta zegoen zientziaren ikuspegitik.
 - Egoera ekonomikoa: Europako mendebaldean hobean zegoen.
 - Egitura politikoak aldaketei mesede egin zien.
 - Politika eta erlijioaren arteko banaketak bultzatu zituen berrikuntzak eta asmakizunak. Zenbait erlijioak oztupoak jartzen dizkiete aldaketei.
 - Gizartearen egitura: Europako gizartea Asiako herrialdeetako baino homogeenagoa eta berdintasunekoagoa zen, aberastasunen banaketari dagokionez.
 - Jabetza-eskubideek eta giza eskubideek lortutako sendotasuna bultzakada izan zen inbertitzeko.
 - XVIII. mendean lortutako merkataritza-zabalkunde izugarria.
- Arrakasta, Ingalaterran
 - Hiru faktore multzok azaltzen dute:
 - 1. Ingalaterrako nekazaritzan lehenengo iraultza eginda zegoen. Lurraren jabetzaren kontzentrazioa lortu zen hesitzea izeneko prozesuaren bitartez. Hesitze-politikak jabetza-eskubideak ziurtatu, finkatu zituen, landak jabe baten menpean geratu zirelako.

Horrez gain, Ingalaterrako nekazaritzan zenbait berrikuntza tekniko gauzatu ziren, eta produktibitatea gehitu egin zen.

Honi esker, hazten ari zen biztanleria elikatzea posible izan zen, lehengaien inportazioaren menpe egon gabe.
 - 2. Berrikuntza teknikoari aurre egiteko gaitasuna, eta XVIII. mendearen erdialdean berrikuntza teknikoak agertzen ari ziren:
 - Gutxika-gutxika makinek ordezkatu zuten giza lana, animalien indarra erabili beharrean indar mekanikoa erabiltzen hasi ziren.
 - Lehengai berriak erabili ziren, gehienetan ez organikoak, mineralak (harrikatza), organikoen ordez (egur-ikatza).
 - Aldaketa nagusia energiaren arloan gertatu ziren: Watt-ek asmatutako lurrinmakina dugu horren adibide klasikoa. Teknologia honek Europako beste herrien gainetik Ingalaterra kokatzeari lagundu zion.
 - Metalurgian, burdina pudelatzen eta, labe garaietan, kokea erabiltzen hasi ziren.
 - Koke: harrikatzetik ateratzen den erregai minerala da
 - Labe garaietan erabiltzen da burdina egiteko.
 - Pudelatu: burdina forjatua egiteko sistema
 - Ehungintzan, kontzentratu ziren iraultza industrialeko asmakizuni ospetsuenak: ehungailu mekanikoak
 - Ezein asmakizun ez zen perfektu heldu, egunero tailer txikietan hobekuntzak egin eta lortzen ziren, esperimentazioaren bidez. Horregatik “hobekuntza

garaia” deitzen zaio Industria Iraultzari.

- 3. Ekoizpena gutxika-gutxika merkatura bideratu zen, ez norberaren kontsumora. Gero eta garrantzi handiagoa dauka, iraultza industrialak azaltzeko, eskaeraren eragina, hau da, kontsumitzaileen eragina ekoizpenaren norabidean. Horregatik, “kontsumoaren iraultza”-z hitz egin ahal dugu. Ingalaterrak barne-merkatua eratu zuen, integratua, aduanarik gabe eta komunikazio-sare modernoarekin: kanalak, errepideak eta, 1830. urtetik aurrera, trenak. Beste aldetik, Ingalaterra kanpo merkataritzatik baliatu zen, zabaltzen ari zena, itsasoan nagusitasuna zuena eta kolonietan monopolioa zuena. Orduan, batu egin zen barne-hazkunde motela eta zabaltzen ari zen nazioarteko ekonomia. Barne-hazkunde motela: hazten zen demografia eta erosteko ahalmen altua.
- Ludismoa
 - Langile mugimendu bat izan zen, Ingalaterran jaio zena, Lancashire eta Yorkshire-ko eskualde industrialetan.
 - Langileen ekintzak 1812. urte inguruan hasi ziren makinak kontra, hauek hondatuz.
 - Langileen kexuak: soldata baxuak eta langileak lanetik kaleratzea, fabriketan sartutako makinak ondorioz.
 - Mugimendu honetatik, geroago lehenengo sindikatuak sortu ziren.
 - 1824. urtean Britainiar Parlamentuak indargatu zituen “Combination Acts”, langileen elkarteak debekatzen zituzten legeak.
- Industrializazioko sektore aitzindariak
 - Sektore hauek hiru izan ziren: kotoiaren ehungintza industria, metalurgia eta trenak.
 - 1. Kotoiaren ehungintza-industria adibiderik onena da iraultza industrialak azaltzeko. Arrazoiak:
 - Industria honek artilearena eta lihoarena ordezkatu zituen.
 - Beste herrialde batzuetako ehungintzako ekoizpena ito zuen, adibidez, Indiakoa.
 - Ingalaterrak Amerika esklabistarekin merkataritza harremanak ezarri zituen, Estatu Batuen ekoizten zen kotoia erosteko, erosle nagusia izan zen.
 - Sektore honetan inon baino arinago berrikuntza teknikoak.
 - 2. Industria metalurgikoaren hedapena XIX. mendetik aurrera izan zen, 1860. urtean “Bessemer metodoa”, agertu zenean, eta altzairua, burdina forjatuaren ordez, pixkanaka aplikatzen hasi zenean.
 - Dena den, aldaketa garrantzitsuak gauzatu ziren: egur-ikatzaren ordez, kokea edo harrikatza erabiltzea izan zen.
 - Kokea erabiltzeak ekarri zituen: energia aurrezteak, deforestazioa gelditzea, eta hobekuntzak sartzea, adibidez, labe garaiak, errektuntza hobetzeko.
 - 3. Garraioen sektorean, nabarmentzekoa da kanalak eta bidesaridun errepideak eraiki zirela. Baina pizgarri nagusia trenbidearen eraikuntza izan zen: Manchester eta Londresen arteko zatia 1825. urtean inauguratu zen. Trenaren sektoreko aurrerapenak beste sektore batzuk indartu zituzten:
 - Meatzaritza, ikatzaren kontsumoagatik.
 - Siderurgia, trenbideak, bagoiak, tren-makinak egiteko.1825. urtean, Ingalaterran 10.000 km. trenbide zegoen dagoeneko. Honek denbora irabazteko garrantzia frogatzeko balio du.
- Britainia Handiko ekonomiaren nagusitasuna
 - XIX. mendearan erdialdean, Britainia Handiak Frantziako biztanleria erdia zuen, baina:
 - Munduan ekoizten zen ikatzaren bi herenak berak ekoizten zituen,
 - kotoiaren eta burdinaren ekoizpenaren erdia baino gehiago,

- Biztanleko 39,4 kilometro zen trenbidea dentsitatea, Alemanian 16,6 eta Frantzia 8,5,
 - Bere kanpo-inbertsioak frantsesak baino ehun aldiz handiagoak ziren
 - Merkatu berriak irekitzen zituen Europa mediterraneoan, Ekialde Hurbilean eta Hego Amerikan.
- Britainia Handiko ekonomiaren nagusitasunari eutsi zion 1870. urtera arte eta gutxika-gutxika gainbeheran hasi zen.
- XIX. mendearen amaierarako Alemania eta Estatu Batuek kendu zioten munduko ekonomiaren lehen postua, baina kontinenteko herrialdek oztopoak gainditu behar zituzten Ingalaterraren mailara iristeko.
- Industrializazioa ,Kontinentean.
 - Industrializazioa kontinenteak beranduago hasi zen.
 - Herrialde eta eskualde bakoitzean oso ezaugarri ezberdinak izan zituen.
 - Gainera, Britainia Handiak lortutako aurreneko postuarekin lehiatu behar izan zuten.
 - Historialari batzuen ustez, Europako kontinentearen industrializazioan zenbait faktore parte hartu zuten protagonismo gehiagorekin, britainiarren ordez: Estatuak, banketxeen jardura edo politika ekonomikoa.
 - Beste historialarien iritziz, ordea, britainiarren maila berera heldu nahia izan zen funtsezkoa, bere ereduari jarraituz, aplikatuz.
- Kontinenteko egoera
 - Kontinenteko Europak britainiarren teknologia eskuratu zuen, baina barne-eraldaketa handiei aurre egin behar izan zuten bere heldutasuna lortzeko.
 - Heldutasuna lortzea ez zen izan posible XIX. mendeko hirugarren herenera arte.
 - Nekazari-gizartearen pisu handiagoa zen.
 - Ekialdeko Europan, nekazariak geroago askatu ziren.
 - Gizarte-egitura ez zen hain berdintasunezkoa, batez ere Ekialdeko Europan.
 - Ondasunen banaketari dagokionez, adibidez, goi-noblezia lur-sail zabalak zituen.
 - Merkataritza eta aduana politikarik eza, oztopo handia izan zen ekonomia dibertsifikatua garatzeko eta ekoizpena merkatura bideratzeko.
 - Britainiako batasun “nazionalaren” aurrean, Kontinenteko aniztasuna oztopo handia izan zen.
- Kontinentearen industrializazioa.
 - Ezaugarri ezberdinak prozesua izan arren, zenbait lerro komun izan zuela azpimarratzea komeni da.
 - 1. “Sektore buruzagia” ez zen izan kontsumorako industria, ekipo-ondasunen industria baizik. Burdinari eta ikatzari lotuta zegoen industria-mota bat zen. Oso erlazionatuta zegoen 1850. urtetik aurrera garraio bideetan gertatutako iraultzarekin, hala trenetan, nola itsas nabigazioan (baporeak). Belgikan, Frantziako iparraldean eta Alemaniako zenbait eskualdeetan merkataritza eta siderurgia handia osatu zuten industrializazioaren ardatza.
 - 2. Banketxe eta industriaren arteko harremana, elkarrekin Kontinentean, batez ere, Alemanian, banketxeen zeregin funtsezkoa izan zen industria astunerako errekursoak eskuratzeko.
 - 3. Estatuaren zeregina. Britainian ekimen pribatua izan zen industrializazioaren bultzatzaile nagusia. Kontinentean, berriz, Gobernuen parte-hartze aktiborik gabe ez zen eraldaketa ekonomikorik gertatuko: inbertsioak erakarri, protekzionismoa ezarri, errekursoak eskuratu lagunduz. Adibiderik argiena tsarren Errusiarena da, hau “industrializazioa estatuaren kontua”

- izan zen. Belgikan, Frantzia eta Alemanian aginte publikoek eragina ere izan zuten industrian.
- 4. Kontinentekoa eskualdeko industrializazioa izan zen. Europan ezberdintasun handiak zeunden herrien artean, eta estatu nazionalen barruan. Eskualde aurreratu batzuk beste batzuen lepotik aberasten zituzten. Atzeratuenean lehengaiz eta lan- eskuz hornitzen zituzten eskualde industrializatuenak. Frantziako iparraldeak, Italiako iparraldeak, Alemaniako Rhin eta Rurh eskualdeak, ... garapen industrial sendo izan zuten. Espainia, Italia eta Portugalgo hegoaldea atzean geratu ziren. Gaur egun mantentzen da ezberdintasun hori.
 - “Heartland” europarra
 - Belgika, Frantzia eta Alemania heldu ziren lehengoak, beste herrialde batzuek baino arinago industrializatu ziren.
 - Hauek Britainia Handiarekin osatzen zuten Europako “motor” ekonomikoa.
 - Errusia, Austria-Hungaria eta Eskandinaviak osatu zuten bigarren taldea, industrializazio-prozesuan geroago sartu ziren XIX. mendean zehar.
 - Europako periferia osatzen zuten Balkanak eta Mediterraneo aldea; Italiako iparraldea, Katalunia eta Euskal Herria talde honetan ez egon arren.
 - 1870. urtera arte Europako herrialde gehienek ez zuten benetako industrializazioa ezagutu, esandako salbuespenekin, hau da, Katalunia, Piemonte, Danimarka, Suedia.
 - Oro ar, garapen ekonomikoa Mendebaldeko Europan arinagoa izan zen, Ekialdeko Europan baino, eta Europako Iparraldeak garatu egin zen Hegoaldea baino arinago.
 - Europako “Heartland” tradizionala
 - Industrializazio garaitik, Londres-ek, Paris-ek eta Alemaniako Ruhr eskualdeak osatu zuten triangulua Europako motor ekonomikoa izan da, Europako “Heartland” tradizionala.
 - Lurralde hau XX. mendearen erdialdean, zehatz-mehatz, Bigarren Mundu Gerraren ondoren, indartu zen ekonomiaren ikuspegitik (inbertsioak, enpresak, zentro teknologikoak, unibertsitateak).
 - 70. urteetako krisi handiak eraldaketak ekarri zituen eta hauek “Heartland”-en hedapena islatzen dute, Europako ekialderantz eta hegoalderantz.
 - Europan beste zentro ekonomiko batzuk sortu dira: Alemaniako eta Frantziako hegoaldean, Suitzan, Italiako iparraldean, Espainiako ekialdean.
 - Estatu Batuak eta Japonia
 - Europa izan zen munduko lehena egitura ekonomikoa transformatzeko.
 - Europatik kanpo, prozesu bikoitza gertatu zen:
 - Ekonomia batzuk gutxika-gutxika “desindustrializatu” ziren, India eta Txina -nekazaritza (biztanleriaren % 80) eta bertako eta eskualdeko merkataritza-, adibidez.
 - Ipar Amerikan sortu zen ekonomia industrial indartsua, EE.BB. ak
 - Japoniaren “mendebalderatzea” gertatu zen.
 - XIX. mendearen bukaeran Estatu Batuek ordezkatu zuen Britainia Handia lehengo postu industrialean.
 - Estatu Batuak eta Japonia XX. mendeko protagonistak izan ziren.
 - Estatu Batuak
 - XIX. mendera arte nekazaritza eta merkataritza oinarritzat zituen.
 - XIX. mendearen lehenengo erdian hasi zen industrializazioa, hiru eskualde oso ezberdinekin:


- Ipar-ekialde industrialia
- Esklabo eta kotoidun hegoaldea
- Erdialdea elikagaiz hornitzailea.
- Estatu Batuetako hedapena
 - Erosketa:
 - Frantziari Luisiana (1803)
 - Espainari Florida (1819)
 - Errusiari Alaska (1867)
 - Beretzea eta gerra:
 - Mexikoren beretzea: Texas (1845)
 - Mexikok emandakoak , gerra galdu ondoren (Guadalupe-Hidalgo Pakea): Kalifornia eta Mexiko Berria (1848)
 - Kolonizazioa: Mendebalderantzeko hedapena, nekazaritza-lurra ugari eta meatzeei esker (Kaliforniako urrea).
 - Trena: Biztanleriaren finkapena eta espezializazio ekonomikoa (hiru eskualdeetan).
- Oinarriak
- Estatu Batuetako industrializazioaren oinarriak honako hauek izan ziren:
 - 1. Nekazaritza indartsua. Horretarako lagungarri izan ziren: lur asko egotea, mendebaldearen konkista eta arin mekanizatu izatea, lan-esku gutxi zegoelako. Erdialdeko nekazaritzak EE.BB. ko biztanleria elikatu zuen eta ekoizpenak Europako merkatuak inbaditu zituen. Produktuak: artoa, garia, soja, tabakoa, etab.
 - 2. Barne-merkatu handi bat osatzea. Britainia Handiko industrializazio-eredua manufakturen esportazioan oinarritu zen. Estatu Batuetan, hala ere, kanpo merkataritza txikia zen, baina barne-merkatu handia sortu zen, horri esker:
 - Mendebaldearen konkistak
 - Kaliforniako urrearen sukarra eta
 - Trenbidearen hedapenak
 Honela XX. mendearen lehenengo herenean kontsumo gizarte bat eratu zen. 1850. urtean ziotenez, gizarte-klase guztiak ondo jantzita zihoazen.
 - 3. Berrikuntza teknologikoek aplikatu zuten ekoizpenaren antolaketan (patente asko), giza lana eta lan mekanikoa bateratzea (taylorismoa eta kate produkzioa) eta enpresen kontzentrazio handia, trust eta korporazioak osatuz. Kontuan hartu behar dugu Estatu Batuetan lan-eskua eskasia zela, eta horren ondorioz, langileei ordainduko beharreko soldatak altuak ziren. Horren eraginez, enpresariak saiatzen ziren giza lana kapitalaren bidez ordezkatzeko, makineria erabiliz edo produkzioa hobeto antolatuz (“Ford” produkzio-eredua).
- Japonia:
 - kasu ezberdina
 - Zibilizazio japoniarra mendez mende egon zen bere baitan itxita.
 - Baina jarrera egokiagoa zuen kanpoko ideiak bereganatzeko edo imitatzeko.
 - Irudia gaiaren amaieran
 - Prozesua
 - 1867-1868. urteetan garai historiko berria hasi zen, Meiji garaia edo Argien garai

- izenekoa ezagutzen duguna.
- 1868. urtetik aurrera, XX mendearen hasierara arte, Japonia industrializatzen hasi zen.
- Prozesu honetan, Japoniak tradizioa eta Mendebaldearen eragina eta teknologiak bateratu zituen.
- Horretarako, Japonian baliatu ziren:
 - Atzerriko unibertsitateetan jasotako heziketa teknikoaz
 - Japoniarren imitatze gaitasunaz.
- Hiru ezaugarri
 - Azpimarratzen ditugun hiru ezaugarriak:
 - Estatuaren laguntza industriak sortzeko
 - Nekazariei zerga gehiago jartzea, industrian inbertsioak finantzatzeko.
 - Talde industrial handiak sortzea, hauek izan ziren buruzagiak ekonomia bultzatuz: kontsumo-ondasunen industriaren garapena eta industria astuna, zabalkunde militarri lotuta.
- Japoniaren arrakastaren arrazoiak:
 - Japoniarren lanerako diziplina eta sakrifikatze ogaitasuna, Mendebaldekoek baino gizarte-kostu handiagoak jasan baitzituzten.
 - Erlijio eta kultura arloko arrazoiak, hau da, gizarteari eta familiari errespetua, komunitatearekiko eta Estatuarekiko leialtasuna.
 - Japoniaren kapitalismoranzko bidea ezberdina izan zen, Mendebaldearekin konparatuz, elkartearen baloreak indartuz ziren Meiji garaia zabalkundean.
 - Leialtasuna edo faktore nazionalista: atzerrira ikasteko irten ziren gazteak, beti itzultzen ziren; hau ez zen gertatu mendebaldeko gazteen kasuan.
- Bigarren iraultza industrial
 - 1870. urtetik aurrera aro berri bat hasi da munduko ekonomiaren bilakaeran.
 - Krisi-tarte baten ondoren, 1873-1890. urteetako “Depresio Handia” izenekoa, *Belle Époque* izeneko garaia heldu zen Lehenengo Mundu Gerra hasi baino lehen (1890-1914).
 - Industrializazio prozesu berri bat garatu zen:
 - Enpresa antolakuntza era berriekin.
 - Produkzio-sektore berriekin eta indartsuekin.
 - Prozesu honetan sartu ziren herrialde gehiagorekin.
 - “Taylorismoa”
 - Kapitala eta lana antolatzeko modu berria sortu zen: “taylorismoa” delakoa (“kudeaketa zientifikoa”).
 Fabrikazio-prozesuetan prozedura mekanikoak sartzea zen horren funtsa, arrazoiaren lekuan ohitura nagusitu arte.
 Langilea baztertuta geratzen zen eta automata bihurtzen zen.
 Muntaketa-kateek lan era horri laguntzen zioten XIX. mendearen azkenetatik aurrera, eta Henry Ford-en automobilak egiteko lantegia da adibiderik onena.
 Automobilgintza iraultza izateaz gain, merkataritza jardura berriei bidea ireki zien (maileguzko salmentari), publizitateari eta maila handiko ekoizpenari.
 Antolaketa hori ezaguna izan zen “fordismo” izenarekin.
 - Sektoreak eta herrialdeak
 - Altzairuak gutxika-gutxika ordezkatu zuen burdina hainbat sektoretan:
 - Garraioetan (trena, ontzi blindatua)
 - Eraikuntzan makinerian

- Kontsumo-ondasunetan (Ingalaterran, Belgikan, Frantzia eta EE.BB. Etan).
- Lortu zen altzairua egitea, asko eta merkea, Bessemer sistemari esker.
- Horretarako beharrezkoa zen burdina berezi bat, fosforo gutxiko burdina, eta hau bakarrik zegoen Bizkaian eta Pittsburgh-en (EE.BB.).
- Kimika industria ere garatu zen, eta bere eragina gauzatu zen beste sektoretan: metalurgia, papergintza, porlana, kautxua, etab.
- Energia iturri berriak sortu ziren: elektrizitatea eta petrolioia, eta horri lotuta dago automobilgintzaren garapena.
- Ekonomia industrialak lekuetara gehiagotara zabaldu zen, hala nola Kanada, Argentina, Errusia edo herrialde Eskandinaviarrak industrializatzen hasi ziren garai horretan.

Japoniako irudia

LA MODERNIZACIÓN DE JAPÓN (1868-1914)



4. KOLONIALISMO ETA IMPERIOALISMOA, (1830-1914)

- Faseak
 - XV. mendearen bukaeratik, Europak munduan toki pribilegiatua bereganatu zuen.
 - XX. mendera arte Europako potentziek itsasoaz bestaldeko lurralde zabalak beren menpe izan zituzten.
 - Inperio iberiarrak, hau da, Portugalgoa eta Hispaniar Inperioa, lehen menderatzaileak izan ziren:
 - XV. mendearen amaieran Cristobal Colonek Amerika aurkitu zuen.
 - Aldi berean, Vasco de Gamaren espedizioa Indiara heldu zen eta 1498. urtean lehenengo kolonia ezarri zen (Calicut).
 - Colonen bidaiekin Amerikako kolonizazioa hasi zen. XVI. mendearen hasieran Portugalgo Inperioa bere koloniak ezartzen hasi zen kontinente honetan, zehatz mehatz, Brasilen (1500-1822).
 - XVII. mendean beste potentzia batzuek parte hartu zuten, hau da, Britainia Handia, Frantzia eta Holanada.
 - Baina XIX. mendearen hasieran inperio iberiarrek bere Amerikako koloniak galdu zituzten, koloniek egindako independentzia gerren ondorioz.
 - Beraz, XIX. mendean zehar Europako zabalkunde kolonialean beste potentzia batzuek parte hartu zuten.
 - 1830. urtetik aurrera, kolonizazio europarra Asiara eta Afrikara abiatu zen.
 - Europako zabalkunde kolonial honetan bi fase ezberdinak ahal dira:
 - Lehenengoa 1880. urtera arte heltzen da. Garai horretan esplotazio koloniala “Ez-formala” izan zela esan daiteke, hau da, harreman ekonomikoak egon arren, metropoliak ez zuten lurralde koloniala politikoki menderatu. Merkataritza-harremanak ezartzea zen helburu nagusia, ez lurraldeak okupatzea.
 - Bigarren fasea 1880. urtetik aurrera gertatu zen. Estatu industrializatuek lurralde kolonizatuen gainetiko kontrola ezarri zuten.
Mendebaldeko potentzia kolonial nagusiek beren ondasunei eusteko neurriak hartu behar izan zituzten: lurralde menpekotasun “formala” ezarri, lur horietako administrazio berezia antolatu, gerrari ekin eta beren nagusitasunari eusteko beste hainbat gastu egin.
Horrelaxe sortu ziren inperio kolonial handiak, bakoitzak bere ezaugarriekin.
Inperio kolonial horiek 1945. urtera arte jarraitu zuten indarrean.
Data horretatik aurrera deskolonizazio prozesua hasi zen eta, aldi berean, Hirugarren Munduaren osaketa politikoa.
- Garai eurozentrikoa
 - 1830. urtetik 1914. urtera, munduaren historia Europak zuzendu zuen.
 - Garai eurozentrikoa izan zen: alde batetik, gertaera historiko asko jazo zen Europako lurretan, eta beste aldetik, gainerako mundua Europak kontrolatuta eta kolonizatuta zegoen.
 - Europako potentziek mundua ia erabat menderatzea lortu zuten, 1914. urtean inguruan, munduko lurren %85 Europaren menpe zegoen.
 - XIX. mendean zehar gutxika-gutxika lortu zen, baina 1880. urtetik 1914 urtera lortu zen zabalkunderik handiena.
 - Hortaz, berehala gauzatu zen, eta sasoi horri inperialismoaren garaia deritzogu.
 - XIX. mendearen lehen erdialdean, oso ezagunak ez ziren lurrak eta itsasoak ezagutzen

- eta esploratzen egin ziren ahaleginik handienak.
- Mendearen azken herenetik aurrera, Europako potentzia nagusiek, Estatu Batuek eta Japoniak lurralde kolonial guztia banatu zuten eta menperatze formala ezarri zuten bere gainetik.
 - Zabalkunde inperialistaren gertakari garrantzitsuenak honako hauek izan ziren:
 - Indian eta Asiako hego-ekialdean ingelesek zuten presentzia sendotzea.
 - Frantziako inperio koloniala Indotxinan sortzea
 - Ozeaniaren eta Pazifikoren banaketa
 - Afrikaren zatiketa.
 - Europak munduan zuen nagusitasuna zenbait indarren adierazpena zen:
 - Industrializazioaren bultzada, XVIII. mendean hasi zen eta sendotzen ari zen.
 - Teknologiaren iraultzaren eragina, garraiobideetan bat ere, baina aurrerakuntzak medikuntzan ere burutu ziren.
 - Europak zuen nagusitasunaren kontzientziak bi adierazpen zituen: alde batetik, gizaki zuriak “misio zibilizatzailea” bete behar zuten, eta beste aldetik, munduan bi eratako arrazak edo nazioak zeuden, indartsuak eta hil zorian zeuden arraza ahulak. Kontzeptu honi “*darwinismo soziala*” deitzen diogu. Gizarte aurreratuenek inposatzeko eskubidea zeukaten, bai eta ahulen lepotik hazten jarraitzeko ere.
 - Zabalkunde inperialistak potentzia handien arteko lehia politikoa adierazi zuen.
 - Inperialismoaren interpretazioak
 - Inperialismo terminoa XIX. mendearen amaieran erabiltzen hasi zen:
 - Mendebaldeko potentziek egiten zituzten konkista kolonialen prozesua izendatzeko erabiltzen zuten.
 - Garai hartan Mendebaldeko politikaren mugimendurik indartsuena zen.
 - Interpretazio asko eman dira mugimendu hori azaldu nahian. Horien artean agertzen den lehenengoa azalpen ekonomikoa izan da, eta garaikideek berek gehien erabili zutena.
 - Azalpen ekonomikoa
 - Autore marxistek -Lenin haien artean- ekonomiari lotutako azalpenak azpimarratu zituzten batez ere.
 - Interpretazio ekonomikoa honen arabera, inperialismoa kapitalismo finantzario edo monopolistaren ondorioa izan zen, eta horrenbestez, merkantziak esportatu eta kapital-soberakinak ezartzeko eremu berriak bilatu behar diren ondorioa.
 - Interpretazio honen alde, bi argumentu daude:
 - Lehenengoz, garai hartako politikoen argi zeukaten zabalkunde koloniala bultzatzea beharrezkoa zela, merkatu berriak irekitzeko eta Europak industrian zuen nagusitasunari eusteko.
 - Bigarrenez, inperialismoa kapitalismo finantzarioaren premien ondorioa izatea, hura fenomeno politiko gisa hartuta.
 - Egia esan, Europako kapitalak beste ekonomia batzuetan sartzea tresna baliagarria izan zen, Europak munduko nagusitasuna lortzeko.
 - Nazioarteko ekonomia antolatua eta espezializatua hedatzeko eta munduko ekonomiaren integrazioa lortzeko kapitalen inbertsioa, beharrezkoa zen.
 - Oro har, esan daiteke Europaren inbertsio guztien helburuak berdinak izan zirela:
 - Merkatu berriak zabaltzea.
 - Etekin handiagoak lortzea.
 - Periferiako herrialdeak ekonomia kapitalistan integratzea.
 - Prozesu honek zer ekarri zuen berekin?

- Herrialdeen arteko menpekotasun-harremanak ezartzea.
- Europak industria-ondasunak ekoiztu eta lehengaiak kontsumitzen zituen.
- Periferiak alderantziz jokatzeko zuten.
- 1870. urtetik 1914. urtera, Europak bere nagusitasunari eutsi zion munduko komertzioaren balio globalean -bere balioak (dirutan) handia izaten jarraitu zuen-.
- Baina merkataritza-trukearen hazkundera ez zegoen zuzenean lotuta merkataritzak munduan zuten hedapenari.
- 1914. urtearen inguruan, merkantzien trafikoaren kuota nagusia herrialde aurreratuenen artean gauzatzen zen hau da, potentzia industrialak eurak ziren bezerori eta eroslerik onenak haien arteko merkataritzan, bat bestearekin lehian egon arren.
- Beste aldetik, produktu manufakturatuenak beti ekoizte ziren Europako edo Ipar Amerikako herrialdeetan.
- Europaren nagusitasun hori, batez ere, Britainia Handiaren eskutik etorri zen. Munduko ontziteriaren %45 Britainia Handiarena zelako eta Europa guztikoa baino handiagoa zen.
- Baina gaurko korrante historiografiko guztiak ez datoz bat inperialismoaren interpretazio ekonomiko horrekin.
- Frantziako inperialismoari buruzko ikerketetan azpimarratu da ez dagoela kanpo-inbertsioen eta zabalkunde kolonialaren arteko lotura zuzenik.
- Frantziako kapitalen nagusia Errusian eta Otomandar inperioan egin zen eta, hala ere, lurralde horiekin zuten merkataritza-trukea oso txikia izan zen.
- Interpretazio politikoak eta ideologikoak
 - Interpretazio politikoek eta ideologikoek, merkataritzakoek eta finantzakoek baino indar handiagoa daukate.
 - Potentzia nagusiek politika inperialista erabili zuten botere mekanismo gisa eta herrialde lehiakideen hazkundera saihesteko.
 - Adibide asko dago:
 - Britainia Handiak Niloren arroa kontrolatzeko Frantzia Senegalgo kostaldetik Erdialdeko Afrikara zabaltzea bultzatu zuen.
 - Errusiako inperioa Erdialdeko Siberiara zabaltzeko britainiarrek Indostan penintsulako iparralde menderatzeko ahalegina bizkortu egin zuten.
 - Faktore estrategiko horien eraginari nazionalismo herrikoa zabaltzea eta arrazakeriazko ideologiak gehitu behar zaizkio.
 - Europako kultura nagusienez eta, onena zelakoan, beste herri eta kultura batzuek Europako kultura bere egin behar zuten.
 - Alegia, goi-mailako arrazen betebeharra behe mailakoak zibilizatzea zen.
 - Mendebaldeko abertzaletasunak berak kolonietako administrazioaren garapenari mesede egin zion.
 - Beste autore batzuen ustez, prozesu inperialista geroago kolonizatuko ziren herrialdeetako arazoak ondorioz sortu ziren.
 - Arazoak ez ziren metropoliak sortutakoak, kolono europarrek sortuak, kolono europarrek baino. Gero eta zailagoa zen kolonien egoerari eustea, bertako biztanle eta estatu indigenen aurrean.
 - Periferiaren ahultasun horri aurre egiteko, kolonoek metropoliaren babes eta "informalak" ziren koloniak "inperio formal" edo ofizial bihurtzea eskatu zuten.
 - Kolono europarrek lurraldeak inbaditzen zituzten lurrak zabaltzeko eta mugetako segurtasuna hobetzeko.

- Gero metropolietako gobernuei babesa eta harremanak estutzea eskatzen zizkieten.
 - Gainera, kolonietan sortutako arazoek ekonomiaren eta merkataritzaren jarduera eragozten zuten eta politikaren bitartez konpondu behar ziren.
 - Horrek metropolietako gobernuak inperio kolonialak formalki osatzeko erabakia hartzera behartu zituen.
 - Amaitzeko, teknologiak eta “inperialismo ekologikoak” Europari periferia menderatzen ere lagundu zioten.
 - Mendebaldeko teknologia nagusitu zen: su-armak, botikak, itsasontzien nagusitasuna edo komunikabideen azkartasuna.
 - Aurrerapen hauek egon ezean, inperialismoa ez zatekeen gauzatuko.
 - Hau da, gizaki europarrarentzat kolonietako herrialdeekin borrokan jardutea ez zen arriskutsua eta gainera kostu handirik gabe egin zen, “teknologiak inperialismoa merkeagoa izatea erraztu zuen”.
 - Beste aldetik, abereak merkatariekin eta kolonoekin batera bidaiatu eta ezarri ziren eta bertako abereak ordezkatu zituzten.
 - Gaixotasunak ere heldu ziren aurkitutako lurraldeetara.
 - Inperioen antolaketa
 - Potentzia kolonialek okupatutako lurralde zabalak kontrolatzeko neurriak hartu behar izan zituzten.
 - Kolonietarako administrazioa eta gobernu-sistema sortu zuten.
 - Kasu gehienetan, potentzia kolonizatzaileak lurralde berriko gobernu osoa osatzen zuen, potentzia hauek kolonia ezberdinei emandako autonomia-maila bestelakoa izan arren.
 - Batzuetan, kolonietako agintari politikoek gobernu osoa potentzia atzerritar baten babesean osatzea onartzen zuten (*Protektoratua*).
Horixe izan zen Afrikako iparraldean (Marokon, Tunisian eta Egipton) eta Asiako hegoekialdeko eskualdeetan gertatu zena.
 - XIX. mendearen hasieratik kolonietako administrazioa osatzeko prozesua oso astiro igaro zen.
 - Inperio kolonial zabalak antolatzeko eredu ezberdinak erabili zituzten:
 - protektoratua,
 - errentan emandako lurrak (Txinan gertatu zen),
 - merkataritza-konpainia pribatuei ematea kolonia esplotatzeko aukera,
 - bi potentzia edo gehiagoren arteko agintekidetzak.
 - Hala ere, administrazio-sistema oinarritzkoenak bi ziren:
 - Kolonia metropoliak beretzea (anexioa) eta metropoliko administrazioko zati bihurtzea. Egoera honetan, kolono zuriak Estatuko hiritarren eskubide politiko berak zeuzkaten.
 - Kolonia metropoliarekin elkartzea eta zeharkako gobernu osoa osatzea, gehienetan “erantzukizuna duena”. Horrek esan nahi du autogobernuaren printzipioa betetzen zela (autonomiaz bizi ziren), tokian tokiko biltzarren bidez.
- Bi eredu horiek bi inperio kolonial handienek hautatutako sistemak izan ziren: Frantziak, lehenengoa ezarri zuen, eta Britainia Handia, bigarrena.
- Britainia Handia:
 - Britainiako Inperioaren administrazioa, sarritan, domeinuetan oinarritu zen. Formula hori gehiengo europarra eta, batez ere, britainiarra zuten kolonietan erabili zen. Hau da, britainiar “joandako” gehien zegoen kolonietan.
 - XIX. mendearen bigarren erdialdean, Kanadan, Australian, Zeelanda Berrian edo Lurmuturreko kolonian (Hegoafrikan) tokian tokiko gobernu-sistemak ezarri ziren.

Gobernu horiek beren ordezkarien ganberak zituzten eta kompetentzia handiak eman zizkieten, defentsa-politika eta kanpo-harremanak salbu. Gobernuaren burua Ingalaterrako Koroak izendatutako gobernadorea zen.

- Indiako administrazioa kasu berezia izan zen, eredu ezberdinak indarrean zeudelako. Zenbait lurralde indigena protektoratu erregimenean zeuden. Baina India osoa zuzenean Britainiar koroaren menpe zegoen.

1845. urtearen inguruan, India osoa Ekialdeko Indietako Britainiar Konpainiaren menpe zegoen. Indiako matxinoek (“zipaioak”) Konpainiaren kontrako gatazka galdu ondoren, 1857. urtetik zuzenean koroaren menpe egotera pasatu zen.

1877. urtean Victoria erregina Indiako enperatriz izendatu zuten.

Indiako Kongresu Nazionala erakundearen bitartez, Indiako nazionalismoa gainerako domeinuen gobernu era berbera lortzen saiatu zen, baina ez zuen lortu.

Indiako Kongresu Nazionala 1885.urtean sortu zen eta independentziaren aldeko prozesua zuzendu zuen.

1947. urtean independentzia lortu arte, Britainiar koroak India zuzenean kontrolatu zuen, “koroaren bitxia” izan arren.

- Frantziako Inperioa:

- Frantziako Inperio kolonialaren gobernuak metropoliko administrazioaren eredu eraman zuen kolonietara. Hau da, koloniak departamentu bihurtu zituen.

Horixe Senegalen, Aljerian, Antilletako lurraldeetan eta Kontxintxinan (Mekong ibaiaren delta) gertatu zen.

Horren ondorioz, kolono europarrek Frantziako sistema politikoan parte hartzen zuten, besteak beste, Asanblada Nazionaleko ordezkarien hauteskundera.

- Aljerian (Frantziako Aljeria 1830-1962), 1871. urtetik aurrera asimilatze-politikara itzuli zen eta hiru departamentutan zatitu zen.

Hortik aurrera, zuzenean Parisko gobernuaren menpe egon zen. Baina kolono europarrek eta juduek baino ez zituzten eskubide politikoak.

Bertako indigena musulmanek osatzen zuten gehiengoak, aldiz, ez zuen eskubide politikorik.

Bazterketa politiko hori XX. mendeko liskar askoren kausa izan zen .

- Hala ere, Frantziako Inperioaren beste lurralde batzuetan, administrazio zuzena (Madagaskarren) edo protektoratua (Afrikako iparraldean) nagusitu ziren.

- Europarrak Asian

- Europarrek Asiako kontinentea ezagutzen zuten, Afrika baino askoz hobeto.

- Kontinente honetan, egitura politiko sendoek gobernatzen zuten eta tradizio handiko dinastia inperialak Txinan eta Japonian ezarriak zeuden.

- Inperio kolonial zaharrek, hau da, Portugalgoak, Espainiakoak eta Holandakoak, Asian jabetza zabalak zituzten (Filipinetan, Goan eta Indonesian).

- Mendebaldeko potentziek, Estatu Batuek barne, hiru esparrutan jardun zuten: Indian, Indotxinan eta Txinako Itsasoan, Txinako sartzeko asmoz.

- A/ Ozeaniako kontinentean, bai Australian bai Zeelanda Berrian europarrek kolonizatzearekin batera ia erabat desagertu ziren Ozeaniako bertako jatorrizko biztanleak. Ekonomia eta gizartea Europan bezala antolatu zen. Prozesu hori Britainia Handiko Inperioak gauzatu zuen.

- Australia

- XVIII. mendean britainiarrak ezarri ziren ekialdeko lurraldeetan.

- 1901. urtean sei britainiar koloniek Australiako konfederakundea osatu zuten, baina Britainia Handiari lotuta jarraitu zuen.

- Gaur egun, *Commwealth*-en kideetako bat da, monarkia parlamentaria da eta Isabel II.a Australiako erregina da. Gobernadore Orokorrek erregina ordezkatzeko du.
- 1931. urtean *Commwealth-en* aurrekariak kokatzen dira, Westminster-eko Estatutuen bidez. Britainia Handiak kolonietako autodeterminazioaren eskubidea onartu zuen eta, handik aurrera, hauetan independentziaren prozesua hasi zen. Mankomunitate hori osatzen duten koloniek Britainia Handiko monarkiarekin leialtasuna mantentzen dute. Nazioarteko lankidetzak, politikaren eta ekonomiaren arloan, bere helburua da.
- Zeelanda Berria
 - Lehenengo europarrak XVII. mendean heldu ziren. XVIII. mendean Europako eta Estatu Batuetako ehiztariak (baleak eta fokak) eta merkatariak lurralde horietan kokatu ziren. 1840. urtean Britainia Handiak bere subiranotasuna ezarri zuen, Zeelanda Berriaren gainetik Frantziako interesak inposatuz. Baina mende horren erdialdetik autonomia nagusi zen. 1893. urtean emakumeek boto-eskubidea lortu zuten, hortaz, lehenengo nazioa izan da.
 - 1947. urtetik *Commwealth*-en kideetako bat da, eta Britainia Handiari lotuta jarraitzen du.
 - Monarkia parlamentaria da eta Isabel II.a Zeelanda Berriko erregina da. Gobernadore Orokorrek erregina ordezkatzeko du.
- B/ India
 - 1763. urtean Britainia Handiaren kolonia bihurtu zen, Zazpi Urteetako Gerraren ondorioz. Baina koloniaren kontrola *Ekialdeko Indietako Britainiar Konpainiaren* esku geratu zen ehun urteetan zehar. Konpainia horrek Indiako Ozeanoaren eta Britainia Handiaren arteko merkataritzaren monopolioa zuen. Merkataritzak honen zentroa Bengalako eskualdean zegoen -Kalkuta hiriburua izanik-, eta hemendik britainiar kontrola gutxika-gutxika lurralde osoan zabandu zen.
 - 1857. urtean “Zipaioen matxinadaren” ondoren, Britainiako gobernuak zuzenean bere esku hartu zuen Indiako administrazioa. Horretarako gobernadore orokor bat eta funtzionario zibilen talde bat (*Indian Civil Service*) ezarri zuen. Talde honek Indiako eraldaketaren prozesua zuzendu zuen:
 - Garraiobideak eraikitzea
 - Hezkuntza zentroak zabaltzea, Europa bezalakoak
 - Ekonomia espezializatzea, Britainiako ekonomiaren osagarri gisa.
 - Indiak Britainia Handiko industriak erabilitako kotoia ekoiztu zuen, eta Britainia Handian ehundu ondoren, Indian beran saltzen zen. Horixe XIX. mendean Indian “desindustrializatzearen” arrazoietariko bat izan zen, Britainiaren mesedetan. Aldi berean, Britainia Handia Indiako lurralde osoan hedatu zen. Mendebalderantz eta iparralderantz Errusiak kontrolatu zituen lurraldeetara heldu zen; Afganistan bi potentzien artean kokatuta zegoen.
 - Ekialderantz, Britainia Handiak Birmania okupatu zuen, Txinako merkaturak lortu nahian. Honela Indotxinako penintsularen hegoaldean Frantzia gehiago hedatu zela eragotzi zuen. Horrez gain, Britainia Handiak Malaysian ere zituen jabetzak, non britainiarrentzat

- gunerik garrantzitsuena Singapur zen (Britainiaren menpe 1867-1963).
 - D/ Indotxinako penintsula
 - Mendebaldeko potentzientzat, beste gune interesgarria Indotxinako penintsula izan zen.

Lurralde honetan mende osoan Frantzia nagusi zen. XIX. mendera arte Frantziarrek ez zuten Ekialde Urrunean egoteko intereserik.

Lurraldeak okupatzen hasi zirenean, Saigon aldera eta Mekong ibaiaren deltarabiabiatu ziren, Txinarekin merkataritza harremanak ezartzeko, batez ere, zetaren merkataritzan parte hartzeko.
 - 1885-1887 inguruan Kanbodia, Annam eta Tonkin okupatu zituzten eta horrekin Indotxina frantsesa erabat osatuta geratu zen.

Lurralde horietan Mendebaldeko okupazioaren kontrako gatazkak sarritan gertatu ziren Vietnamgo gerrara arte.

Vietnamgo gerra 1964-1974. Vietnamgo ekialdearen eta iparraldearen arteko gerra izan zen. Estatu Batuek ekialdeari lagundu zioten eta Sobietar Batasunak iparraldeari.
 - E/ Txina
 - Aspalditik Mendebaldea Txina ezagutu eta sartu nahian zihoan, Marco Polok egindako bidaiak egiaztatzen dute (XIII-XIV).

Txinatik salgai baliotsuak zetozen (zeta, espeziak), bai eta Europari nagusitasuna eskuratzen lagunduko zioten asmakizun asko ere (iparrorratza eta bolbora).

Baina XV. mendearen bukaeratik aurrera, Txina bere baitan biltzen hasi zen eta horrek zaildu egin zituen Mendebaldearekiko harremanak.
 - XVIII. mendearen bukaeratik britainiarrak Txinako portuekin merkataritza harremanak ezartzen saiatu ziren eta XIX. mendean zehar eginkizun honetan jardun zuten.
 - Txina Asiako inperiorik handiena zen, biztanle asko zituen (400 milioi inguru) eta antolaketa sendoa zuen, zein dinastia inperialen eta burokrazia adituan oinarritu zen.
 - Txinaren irekitze-prozesuaren lehenengo fasea 1839. urtean hasi zen, opioaren gerra hasi zenean.
 - Estatu Batuetako independentziaren ondoren, Britainia Handiak tea eskuratzeko aukera galdu zuen eta Txinatik inportatzen hasi zen.
 - Hori ordaintzeko, Indian ekoizten ziren opio kargamentuak erabili nahi izan zituen, txinatarrak opiozaleak zirelako.

Txinako inperioa salerosketa honen kontra zegoen. Inperioak droga honen trafikoa debekatu zuen, baina funtzionario ustelei esker egin zen eta azkenean gerra gertatu zen.

Txinaren porrotaren ondorioz, 1842. urtean Nanking-eko Hitzarmena sinatu zen.

Txinak Hong-Kong irla eman zion Britainia Handiari eta bost portutan merkataritza libre onartu zuen; porturik garrantzitsuena Kanton zen.
 - 1844. urtean Estatu Batuekin eta Frantziarekin beste hitzarmenak sinatu zituen.

Harrezkero, Mendebaldera portu gehiago zabaldu ziren. Txina mendebaldera zabaltzearen azken fasea XIX. mendearen amaieran gertatu zen, Japoniaren eta Txinaren arteko gerrarekin (1894-1895) eta *Boxer*-en gerrarekin (1900).

Azken honetan, Mendebaldeko potentziek esku hartu zuten militarki, atzerritarren kontra matxinada saihesteko. Mendebaldeko doktrina librekanbista tinko ezarri zen.
- Afrikaren banaketa

- Afrikaren banaketa Europako potentzien artean 1880. urtetik gertatu zen prozesu bat izan zen eta 1884. urteko Berlingo Konferentzian finkatu zen.
- Aurrekariak 1830. urtetik 1880. urterako tartean kokatzen dira. Hortaz, garai horretan kontinentearen barnealdea esploratu zen eta harremanak ezarri ziren.
- Kolonizatu aurreko Afrikako kontinentea ez zen antolaketa eta tradizio politikorik gabeko tribu basatien multzoa, zein europarrak helduean zibilizatu zen.
- Mendeetako historia zuten benetako estatuak eta inperioak zeuden indarrean europarrak iritsi zirenean.
- Honako hauek zeuden:
 - Maroko sultanerria
 - Aljeria, Tunisia eta Tripoliko erregeordetza berbereak
 - Egipto erresuma (1882. urtetik Ingalaterrako protektoratua izan zen, 1922. urtean independentzia lortu zuen, baina Ingalaterraren eragina 1952. urtera arte mantendu zen).
 - Mendebaldeko Afrikan eta Afrika ekuatorialean Dahomeyko eta Kongoko erresumek armadak, aberastasunak eta berezko antolaketa zituzten.
 - Afrikako hegoaldean, garrantzi handiko erresumak ere zeuden, Zanzibargoa eta Zuluena.
- XIX. mendean, europarrek kontinentean sartzeko bi ardatz erabili zituzten:
 - Ipar Afrikatik eta Senegaldik
 - Britainia Handia Hego Afrikan sartu zen
 Frantziak Aljeria konkistatu zuen eta, Britainia Handiarekin batera, lehian sartu ziren Egipto kontrolatzeko. Suezeko kanala Indiara igaro ahal izateko leku estrategikoa zelako.
- A/ Aljeriaren konkista (1830-1962) 1830. urtean hasi zen, Aljer hiria Frantziak hartu zuenean. Baina hogeita hamar urte eman zituen barnealdeko lurak okupatzen, tribu berberekin gerragatik. Koloniaren segurtasuna areagotzeko, 1880. urtetik aurrera Tunisia (1881-1956) eta Maroko (1906-1912-1956) alderantz hedatu zen Frantzia.
- B/ Senegalgo kostaldean Merkatari frantsesak eta ingelesak ibiltzen ziren eta merkataritzan aritzen ziren: Afrikako esklaboak eramaten zituzten Antilletara eta handik azukrea ekartzen zuten Europara. 1850. urtetik Frantzia lurralde hauetatik hedatu zen.
- D/ Afrikako hegoaldean XVII. mendean, *Holandako Indietako Konpainia* Lurmutur eskualdea kolonizatzen hasi zen. 1806. urtean Britainia Handiari eman zion eta honek kolono holandarrekin gatazkak ekarri zituen. Kalbinistak ziren, *boer* izenekoak, nekazaritzan eta abeltzaintzan aritu ziren. XIX. mendearen bigarren erdialdean *Boer*-gerra izenekoak hasi ziren, Britainiarrek itsasorako irteerak kontrolatzen zituztelako eta diamante eta urre-meategiak ere bereganatu nahi zituztelako. 1880. urtetik aurrera Afrikako kontinentearen banaketa Europako potentzien artean hasi zen. Mendebaldeko potentziak lurraldeak bereganatzeko helburuarekin aritu ziren, baina potentzia lehiakideei lurraldeak eskuratzea eragozteko asmoz. 1882. urtean Britainia Handiak Egipto okupatu zuen. Honek Frantzia Magreben eta Sahara hegoaldeko Afrikan hedatzera bultzatu zuen. Belgikako erregeak, Leopoldo II.ak, Kongo ibaiaren eskualdea hartu zuen. Aldi berean, Alemaniak, potentzia handi bihurtzean, koloniak izatea eskatu zuen.

- Berlingo Konferentzia
 - Leopoldo II.ak eta Bismarckek Berlingo Konferentzia (1884-1885) antolatu zuten, Afrikako politika ezartzeko.
 - Berlingo Konferentziak ezarritako erabaki garrantzitsuenak honako hauek izan ziren:
 - Niger eta Kongo ibaietan nabigatzeko askatasuna
 - Merkataritzako askatasuna Erdialdeko Afrikan
 - Lurraldeak hartzeko doktrina berri bat ezartzea: lurraldeen benetako jabeak okupatzaileak ziren eta ez esploratzaileak edo aurkitzaileak.
 - Beste aldetik, kontinentearen banaketako emaitzak honako hauek izan ziren:
 - Potentzia koloniak berriak, hau da, Alemaniako II. Inperioak inperio kolonial handi bat eraikitzea lortu zuen Gineako Golkoan (Kamerun eta Togo) eta Hegoaldeko eta Ekialdeko Afrikan (gaurko Namibia eta Tanzania).
 - Italiak Eritrean eta Somalian geratzea lortu zuen eta geroago Libian (eta Etiopian 1936-1941).
 - Belgikak Leopoldo erregearengandik Kongoren jabetza jaso zuen (1890).
 - Portugalgo Inperioak Angola eta Mozambique lortu zituen.
 - Frantzia, Aljeriatik eta Senegaletik Afrikako erdialderantz hedatzen saiatu zen.
 - Britainia Handia Hego Afrikan eta Egipton ezarrita zegoenez, Sudan konkistatu zuen 1898. urtean. Baina Alemaniako Inperioa Ekialdeko Afrikan sartzeak ezinezkoa egin zuen Ingalaterraren Afrikako inperioko lurak elkarren ondoan tarterik gabe egotea. Frantziak ez zuen hori lortu.
Hala ere, Britainia Handiak lau itsasoak kontrolatu zituen (Itsaso Gorria, Ozeano Indikoa, Ozeano Atlantikoa eta Mediterraneo Itsasoa).

5. TSARISMOTIK SOZIALISMOTIK ERRUSIAN

Iraultza eta eraldaketak

- 1. Tsarren Errusia
 - XX. mendearen hasieran, tsarren Errusiako egiturak eta Mendebaldeko Europakoak oso ezberdinak ziren.
 - Errusia aldaketa politikoak eragiteko gaitasunik gabeko estatua zen.
 - Hiru taldek agintzen zuten: burokraziak, noblezia lurdunak eta Eliza ortodoxoak.
 - Menpekoak tsarrarekin leialak ziren, batez ere, nekazariguneetan.
 - Tsarrek, Alejandro III.ak (1881-1894) eta Nikolas II.ak (1894- 1917), ez zituzten berrikuntza berriak ekarri.
 - Tsarismoak Antzinako erregimena ordezkatzeko zuen.
 - Europako erregimen autokratiko nagusia zen.
 - Europan erregeen botere absolutuaren kontrako iraultza liberalak XVIII. mendeko amaieran hasi ziren.
 - Alejandro III.ak (1881- 1894) XIX. mendeko azken hamarkadetan indartutako sistema autokratikoa zuen Errusian.
 - Nikolas II.ak honako hau gogorarazi zuen: “goi-botere autokratikoa Errusia guztietako enperadoreak du.
 - Arlo politikoan, ez zegoenaldaketarik.
 - Arlo ekonomikoan, berriz, Errusia iraultza industrial azkar bateansartu zen.
 - Bi faktore industrializazioa bultzatuzuten:
 - 1861. urtean morrontzadeuseztatzeak.
 - Trenbideen eraikuntzak.
 - San Petesburgo inguruan eta Baltikoko kostaldean industrializazio lehengo ekimenak hasi ziren.
 - Morrontza deuseztatzea
 - Alejandro II (1856-1881)
 - 1861. urteko Dekretua
 - Lur-jabeen deslotura juridikoa.
 - Nekazariak banatu ziren lur-sailak ordaindu behar zituzten.
 - Nekazaria Estatuaren zordun bihurtu zen.
 - Zorrik ordaintzeko, nekazari ugari bere herrixketan geratu behar zen.
 - Beste batzuk hirietara emigratu zuten.
 - Trenbide berria eraikitzeak, Transiberiarra esate baterako, mesede egin zien:
 - Gune ekonomiko berriak zabaltzeari,
 - Lur berriak kolonizatzeko aukera emateari,
 - Errusiako nekazaritza guneetako biztanleak beste lurralde batzuetara emigratzeari,
 - Merkatuak ziurtatzeari,
 - Uraletan eta Ukrainan burdinaren , ikatzaren eta petrolioaren meategiak ustiatzen zituen industria astunari sendotzeari.
- 2. Lehenengo aldaketak
 - Aldaketa ekonomikoek sistema politiko autokratikoa kolokan jarri zuten.
 - XX. mendearen hasieran, Errusiako klase ertain berrien artean, sistema parlamentarioa sortzea indarra hartzen hasi zen.
 - Aldi berean, langile-klasearen lehenengo elkarteak sortu ziren.
 - 1898. urtean *Errusiako Langileen Alderdi Sozialdemokrata* sortu zen.
 - Ez zuen indar handirik izan eta, 1904. urte inguruan, bi taldetan banatu zen:

- mentxebikeak eta boltxebikeak.
- 2.1. Iraultza-saiakera (1905)
 - Tentsio giro horretan, Errusiaren eta Japoniaren arteko gerrak egoera okerrera egiten lagundu zuen (1904-1905).
 - Errusiak eta Japoniak Mantxuriaren eta Korearen gainetik kontrola eta eragina nahi zituzten.
 - Errusiako tsarrak bere boterea berretsi nahi zuen gerraren bidez.
 - Errusiaren porrotak herriaren nahigabea ekarri zuen.
 - 1905. urteko Ilgande odoltsua
 - 1905. urtean iraultza hasi zen gertaera enblematiko batekin: Ilgande odoltsua (urtarrilaren 22an)
 - Milaka langile, manifestazioan, San Petersburgoko jauregira abiatu ziren tsarrari eskatzeko:
 - Bizi-baldintzak hobetzea
 - Zenbait aldaketa politiko egitea
 - Armada bortizki desegin zuen manifestazioa eta heriotza asko egon ziren.
- 2.2. Iraultzaren ondoren
 - Ordutik aurrera, matxinadak eta altxamenduak zabaldu ziren inperio osoan, armadara ere heldu zen bere eragina.
 - Iraultzaren hasieran, burgesia liberalak eta langilemugimenduak bat egin zuten.
 - Tsarren erantzuna hau izan zen, zenbait erreforma egitea:
 - Gizonezkoen sufragio unibertsala ezarri
 - Zenbait askatasun zibil onartu
 - Ordezkarien ganbera eratu: Duma (1906)
 - Urritik aurrera, langile-mugimenduak protagonismoa hartu zuen eta antolatzekeo egitura berria probatu zuten langileek:
 - Sobieta: langile, nekazari eta soldaduen kontseilua.
 - Nahiz eta langileen grebek jarraitu, baretu ziren.
 - Erreformak lortu ondoren, langile-mugimenduak ondorio hauek atera zituen:
 - Burgesia liberala erretiratu zen, erreformak behin lortuta.
 - Nekazariz, batez ere, osatuta zegoen armadak tsarrarekin leiala izaten jarraitu zuen.
 - Boltxebikeen ustez:
 - Langile-mugimenduak ez zuen batasunik (boltxebikeak, mentxebikeak, sozialista iraultzaileak eta alderdietan antolatu gabeko zegoen gehiengoa).
 - Lenin-ek bere ondorioa atera zuen:
 - Langile-klasearen eta nekazarien arteko elkartasuna beharrezkoa zen, proletario-taldeak baino ezin zuen bihurtu iraultza burgesa iraultza sozialista.
 - Hala kontzeptualizatu zen lehenengo aldiz proletarigoaren diktadura.
- 3. 1906tik 1914.ra
 - Bi gertakizun jazo ziren Errusian:
 - a/ Parlamentarismoaren porrota eta
 - Tsarrak ezarritako legeak frogatu zuten Duma Parlamentu bat ez zela, Nikolas II.ak erakunde honen kompetentziak mugatu zituelako. Alderantziz, Estatu Kontseilua goi-ganbera bihurtu zen eta erakunde horretako kideen erdiak tsarrak aukeratu zituen. Botere betearazleak Duma desegiteko eskumena zuen eta tsarrak beto-eskubidea mantendu zuen. Parlamentuan jarri zuten itxaropena gutxika-gutxika ahuldu zen.

- Lenin-ek argitu zuen boltxebikeen helburu nagusia: iraultza sozialista (*Apirileko tesiak*).
- Gerra errefusatzea eta lurren banaketa ziren iraultzaren oinarriak, bide horretan langileak eta nekazariak elkartzera behartzeko.
- Behin-behineko gobernuarekin ez lankidetzarik, ez eta Parlamentuarekin (Duma) ere.
- Lenin, iraultzaren teoriarria eta antolatzailea
 - Bizitza guztia igaro zuen heziketa teorikoa bereganatzen, marxista errusiar eta alemaniarrengandik ikasten.
 - Marxismo hori hartu eta egokitu zuen lurralde atzeratu baterako, Errusiako Inperiorako.
 - Ikasitako teoriak praktikara eraman zituen 1905. urteko iraultza-saiakeran, baina honek porrot egin zuen.
 - Sortutako sobietak izan ziren 1917. urteko iraultzako tresna iraultzailea.
 - Nahiz eta Errusia herrialde atzeratua izan, bertan iraultza egin zitekeela defendatu zuen.
 - Zein izan behar zuen sobieten eginkizunak, sozialismoa eraikitzeko, eta nolakoa izan behar zuen proletalgoaren diktadura zehaztu zuten (*Estatua eta Iraultza*).
- Iraultzaren bigarren fasea
 - Behin-behineko gobernuaren jarrera, bai eta bere alde zeuden taldeena ere (Kadete-alderdi demokratiko eta konstituzionala), kontinuitista izan zen.
 - Boltxebikeen arteko talde batek -"bigunek"-, ez zuen Lenin-en jarrera finko eta zorrotza, gerraren bukaera eskatzeko.
 - Sektore politiko kontserbadoreenak gogortu egin ziren. Gerra jarraitu nahi zuten, bai eta armada mantendu ere, geroago boltxebikeen kontra erabiltzeko.
 - Behin-behineko gobernuak kontserbadoreen helburua beretzat hartu zuen.
 - Ekainean, herri-matxinada bat antolatu zen, Boltxebikeek bultzatu zuten baina porrot egin zuen.
 - Porrotaren ondoren, Lenin Finlandian ezkutatu zen eta klandestinitatera igaro zen.
- Altxamenduaren hasiera
 - Irailean, Kornilov, armadaren ofizial kontserbadore bat, estatu-kolpe bat ematen saiatu zen, gobernu autoritarioa ezartzeko.
 - Behin-behineko gobernuak eta sobietek batera erantzun zuten, baina ekimena sobieten esku geratu zen.
 - Urriaren, Leninek iraultza prestatu zuen. Boltxebikeen Komite Nagusiak altxamendu armatuaren alde egin zuen eta Komite Militar Iraultzailea antolatu zen, Trotski buru zela.
 - Neguko jauregia hartu zuten (urriaren 26 an) eta, azaroan, Mosku erabat kontrolatu zuten.
 - Hurrengo hilabeteetan Errusiako hiri nagusietatik iraultza hedatu zen, baina oraindik lurralde zabalek jarraitu zuten aurreko agintarien menpe.
- 6. Gerra zibila (1918-1921)
 - Herriaren Komisarioen lehenengo gobernuak eratu zen 1918. urteko urriaren 26an.
 - Lenin zen lehendakari eta berarekin agintean zeuden, besteak beste, Trotski eta Stalin.
 - Sobietar boterea eraikitzeko arazo asko izan ziren, eta 1918. urtetik 1921. urtera arte gerra zibila gertatu zen.
- 6.1. Ekonomiaren arloan

- Lehenengo dekretuan, gobernu berriak lurak banatu zituen nekazari pobreen artean, lur-gabeko nekazarien arazoa konpontzeko.
- Ez zien inolako ordainik eman lur-jabe handiei.
- Urtebete geroago, gerra zibilak sortutako nahasketak, nekazarien ondasunak pilatu nahiak eta hiriak horniketarik gabe geratzeak behartu zuten gobernuak konfiskatze-politika egitera eta nekazaritzan jabetza sozialista ezarri zen.
- 6.2. Lehenengo Mundu Gerra.
 - Beste aldetik, Errusia Lehenengo Mundu Gerratik erretiratu zen, 1918. urteko martxoan, ituna sinatu ondoren.
 - Itunaren arabera, Errusiak garrantzi ekonomiko handiko eskualdeak galtzen zituen.
 - Baina gerratik irtetzea beharrezkoa zen iraultzak aurrera egiteko. Gerratik etxeratu ziren soldaduekin boltxebikeen gizarte-oinarriak zabaldu egin zirelako.
 - Hala ere, potentzia aliatuek gerra zibilean kontrairaultzaileen alde parte hartu zuten, ezin zuten iraultza onartu.
- 6.3. Politikaren arloan
 - Botere boltxebikea ziurtatzea izan zen helburua, iraultza sendotzeko.
 - Burgesiaren alderdiak desegin zituzten eta sobietetan zeuden hiru alderdi geratu ziren: boltxebikeak, sozialiraultzaileak eta mentxebikeak. 1917.ko azaroan oraindik boltxebikeak gutxiengoan zeuden (25%).
 - Sobieten barruan mentxebikeen eta boltxebikeen arteko borrokak hasi ziren, azkenean boltxebikeak inposatu ziren.
 - Ordura arteko lema “botere guztia sobietentzat” izatetik, “botere guztia Alderdi Komunistarentzat” izatera pasa zen.
 - Honela deitzen zitzaion boltxebikeei.
 - Beste taldea -mentxebikeak, sozialiraultzaileak, eta anarkistak- politika-gunetik desagertu ziren.
 - Errepublika Federal Sozialista eta Sobietarra (1918-1991)
 - 1918. urteko uztailean, Errusiak konstituzio berri bat hartu zuen.
 - Honetan, herrialdea Errusiar Errepublika Federal Sozialista eta Sobietarra zen, proletarioaren diktaduraren erregimenaren agindupean.
- 6.4. Gerra zibilaren bilakaera.
 - 1918. urteko hasieran, hiri eta industria-gune nagusietan baino ez zuen irabazi iraultzak.
 - Eskualde osoak zeuden boltxebikeen kontrolatik kanpo, eta toki horietan sortu zen kontrairaultza. Kontrairaultzaileak ziren: tsarismoaren aldekoak, burgesia liberalen taldeak eta urriko iraultzako disidenteak.
 - Siberian, Volgako eskualdean, Kaukason, Ukrainan, Baltikoan eta iparraldean zituzten plataformetatik, tropa ingeles, frantses, ipar amerikar eta japoniarren laguntzarekin, “armada zuriek” (kontrairaultzaileek) aurre egiten zion botere sozialista gazte berriari.
 - Boltxebikeek, Trotski buru zela, aurkako estrategia antolatu zuten:
 - Zentralismo politikoa areagotzea
 - Gerrako komunismoa
 - “Armada Gorria” sortzea (Trotskik antolatuta).
 - “Armada Gorriak” irabazi zuen eta “Armada Zuriak” erretiratu ziren.
 - Potentzia aliatuek gerran parte hartu zuten iraultza hedatzeko arriskuengatik eta interes ekonomikoengatik; Kaukasoko petrolioaren kontrolatzeko eta Errusian eragin guneak ezartzeko.

- 6.5. Nazionalitateen arazoa
 - Gerra zibilak nazionalitateen arazoa konplikatatu egin zuen.
 - Tsarren inperio zaharraren lurretan, hainbat hizkuntzak, kulturak eta erlijioak osatzen zuten mosaikoa errusiartze-politika menpean zegoen.
 - Boltxebikeek onartu zuten herrien burujabetza-eskubidea, horrek iraultza mundura zabaltzen lagunduko zuelakoan.
 - 1918. urtetik Estatu Sobietarrak egitura federala hartu zuen.
 - 1923. urteko konstituzioak onartu zuen eta Sobietar Errepublika Sozialisten Batasuna (SESB) ezarri zen. Errusiako Errepublikak, Transkaukasikoak, Ukrainak eta Bielorrusiak osatu zuten.
 - 1924. urtean Uzbekistan eta Turkmenistan elkartu ziren.
 - 1929. urtean Tadjikistan.
 - Antolaketa federal horrek, teoriarik, errepubliken autogobernua bermatzen zuen, baina praktikan Moskuren nagusitasuna ziurtatzen zuen.
 - Herrialde guztiak Moskuren menpe izateko, tokian tokiko eliteak hartu eta alderdira sartu zituzten, balore komunistak bereganatuz eta boterearen erdigunean integratuz.
 - Stalinen garaian, zentralismo politikoa areagotzen ze neurrian, ahuldu egin zen nazionalitateekiko errespetua.
 - Stalin tsarren garaiko errusiartze-jarduera itzuli zen.
 - Lenin-ek iraultza mundutik hedatzea pentsatu zuen.
 - Marx-ek bezala, Lenin-ek uste zuen, Errusiako iraultza jarraitzeko, Alemanian irabazi behar zuela.
 - Lenin-en itzaropena desegin zen. Errusiako Iraultza bakartuta zegoen kontrairaultzaren aurkako borrokan.
 - Alemaniako iraultza porrot egin zuen eta Iraultzak oztopo handiak aurkitu zituen beste herrialdeetatik hedatzeko.
 - Herrialde kapitalistetan beldurra sortu zen.
 - Beste herrialdeetan alderdi komunistak sortu arren, beldurrak Sobietar Batasun berria bakarrik uztea inposatu zuen.
 - Horrez gain, langile-mugimenduaren barruan, talde sozialdemokratek nagusi izaten jarraitu zuten.
- 6.6. Gerra zibilaren ondoren
 - Gerra zibilak ekonomia egoera larrian utzi zuen:
 - Bai nekazari-ekoizpena, bai ekoizpen industrialala behera joan ziren.
 - Kexa sozialak agertu ziren matxinada moduan.
 - Horregatik, Politika Ekonomiko Berriak (PEB) sistema misto bat garatu zuen, kapitalismo eta sozialismoaren arteko sistema bat.
 - Erreformek jabetza pribatua nekazaritzan onartu zuten eta merkatu-mekanismoak sartu ziren.
 - Industriaren arloan, ekoizpen-unitate txikiak desnazionalizatu egin ziren eta zenbait autogestio-maila onartu zen.
 - Baina industria handia estatuaren esku geratu zen.
 - Ezarritako sistema hau beharrezkoa zen, geroago sozialismora pasatzeko.
 - 1926. urtean sobietar ekonomia bizkortu egin zen, batez ere nekazaritzan.
 - Hala ere, tentsioak handitu ziren eta bi talde sortu ziren:
 - Nekazari aberatsak, “kulag” izenekoak eta
 - Lurrik gabeko nekazari gero eta ugariagoak

- Alderdi komunistako talde batek ulertu zuen Politika Ekonomiko Berria Sobietar Batasunean kapitalismoa, astiro baina nabarmen, berrezartzeko bidea zela.
- Argumentu kritiko hori erabili zuten, Lenin hil ondoren 1924. urtean, boterea eskuratzeko borrokan aritu zirenek.
- 7. Stalinen garaia
 - 1924. urtean hil zen Lenin.
 - Honek, buruzagi boltxebike zaharrek osatutako zuzendaritza aurreikusitako bere oinordetza hartzeko.
 - Talde honetan Trotski eta Stalin zeuden, nabarmenak eta antolatzaile bikainak ziren.
 - Politikaren arloan, Stalin-ek botere handia zeukan, hobeto kokatuta zegoen alderdi barruan.
 - Nahiz eta Stalinen nortasuna Leninek ez izan oso gustuko, 1925.etik 1928.era bitartean, buruzagi boltxebikearen ondorengoa izateko indarra hartu zuen.
 - 7.1. Stalinen diktadura (1929- 1953)
 - Stalinek beste buruzagi zaharrak aldentzea lortu zuen, hain zuzen Trotski.
 - Alderditik kanpo utzi zuen, geroago Sobietar Batasunatik kanporatu zuten, eta azkenean, 1940. urtean Stalinen agenteek hil zuten.
 - 1929. urtean oposizioko buruzagi nagusiak garbitu ondoren, Stalinen diktadura hasi zen.
 - Alderdi Komunistaren nagusitasuna
 - Alderdi Komunista erabateko nagusitasuna zuen Estatuaren eta gizartearen gainean.
 - Ekonomia planifikatu zen eta erakunde burokratikoek agindutakoa bete zuten.
 - Stalinismoak teoria bat ezarri zuen: “herrialde bakarreko sozialismoaren teoria”.
 - Iraultza esportatzea ezinezkoa zen. Horregatik, inportatzen zuena hau zen:
 - Sobietar Batasunen iraultza finkatzea, sendotzea.
 - Gero, etorkizunean, bere ekintza munduan zehar hedatzea.
 - Teoria honen arabera, beharrezkoa zen industria sendotzea, industria garatuaren eta astunaren bitartez, iraultzaren geroa ziurtatuta geratuko zen.
 - Obedientzia eta terrorea
 - Alderdi Komunista zuzendari gisa ezarri zenean, legezko bihurtu zen Stalinen beraren diktadura.
 - Identifikatu ziren Alderdi Komunista eta Sobietar Estatu eta hori 1936. urteko Konstituzioak legalki ezarri zuen.
 - Stalin Alderdi Komunistaren Idazkari Nagusia izan zen 1922. tik 1952.era arte eta aldi berean Sobietar Batasunaren Buruzagia (1922-1952).
 - Sistema politiko demokratikoaren oinarriak ez ziren bete: ez zen egon hauteskunderik, ez eta boterearen banaketarik ere.
 - Heldu zen:
 - Stalin buruzagi hutsezina izatera
 - Bere nortasuna gurtzera
 - Edozein desadostasuna gogorki zigortzera
 - Ez eztabaidatzera, obedientzia itsua eta terrorearen nagusitasuna
 - Terrorea, bai alderdiaren barruan, bai gizarte zabalean inposatu zen:
 - Politiko aurkakoak fisikoki desagerraraziz, “purga” delakoa edo garbiketa.
 - Sobietar gizarteak alderdiari beldurra hartu zion.
 - Garbiketa edo purga sistematikoki inposatu ziren, batez ere, 1935. urtetik 1939. urtera.

- Garbiketa horietan, erori ziren buruzagi boltxebike zaharrak, baina prozesu horiek sobietar hiritarren kontra ere aplikatu ziren.
- Alderdiak derrigorrezko kolektibizazioa ezartzen zuen.
- Horrekin batera, biztanle-talde handiak lekualdatzen zituen eta kontzentrazio-esparruetan sartzen zituen.
- Polizia politikoa
 - Terrorea ezartzeko tresna, polizia politikoa izan zen (NKVD).
 - Gerra zibilean sortu zen, baina oraingoan guztizko boterea zuen gizartean eta alderdian.
 - Polizia bera ere Stalinen garbiketen menpe zegoen.
 - Izuak, salaketek eta susmoek hartu zuten sobietar gizartea eta nonahi konplizeak eta salatariak sortu ziren.
 - Gizarteak berak sustatu zuen terrorearen dinamika, eta sistema horren zerbitzari leialak sortu zituen.
- Planifikazioa
 - Sobietar ekonomiak egitura berezia hartu zuen:
 - Planifikatu zen,
 - Gero eta burokrazia gehiago sortu zen, eta
 - Erakunde planifikatzaileen kontrola ezarri zen.
 - Ekonomiaren planifikazioari dagokionez, bost urteko planak ezarri ziren, lehenengoa 1928. urtean.
 - Estatuak ekimen pribatua erabat ordezkatu zuen eta berak kontrolatzen zuen ekonomia-politika.
 - Helburuak ziren: ekonomia ahalik eta gehien haztea eta Sobietar Batasuna industrializatzea.
- Nekazaritzaren kolektibizazioa
 - Beste aldetik, bost urteko planek nekazaritzaren kolektibizazioa ekarri zuten.
 - Kolektibizazioa bi eredutan oinarritu zen:
 - Sovjos-ak, Estatuak zuzenean kontrolatzen zituzten eta nekazariei soldata emanten zien.
 - Koljoz-ak, nekazari-kooperatibak. Ia ez zegoen jabetza pribaturik nekazaritza sobietarrean, koljoz- etako nekazariei emandako lur-sail txiki batzuk ziren salbuespena.
 - Kolektibizazioaren kontrako erresistentziari aurre egiteko, Gobernuak neurri hertsatzaileak erabili zituen nekazarien kontra, adibidez, hilketak (fusilamenduak) eta herri osoak deportatu zituzten.
 - Lur guztiak batera kolektibizatzeak azaltzen dun nekazaritzaren atzerapena. Errendimenduak oso txikiak ziren.
- Erakunde planifikatzaileak
 - Erakunde horiek erregulatu zituzten: neurri makroekonomikoak, ekoizpen-mailak, aurrezkiak, inbertsioak, kontsumoa, prezioak eta soldatak.
 - Beste aldetik, ez zen onartu inolako autogestiorik enpresetan, edo oso mugatua izan zen.
 - Finantzetan:
 - Mundutik bakartuta, kapitala barrutik lortzen zen.
 - Horretarako, nekazaritza izan zen hazkunde industrialia finantzatu behar izan zuena.
 - Ez zituzten kontuan izan nekazaritzarako inbertsioak.

- Ondorioz, nekazaritza garapen industrialaren menpe geratu zen.
 - Industria azkar hazi zen eta nekazaritza atzean geratu zen. Honek desfase handia eragin zuen eta arazo larri bihurtu zen sobietar ekonomiarentzat.
 - Inposatu zen kontsumo pribatua gutxitzea, inbertsioetarako aurrezkoa handitzeko helburuarekin.
 - Planifikatzaileek lehentasuna eman zioten industria astunari, kontsumo-ondasunen ekoizpenaren gainera.
 - Bi merkatu zeuden: ofiziala eta beltza, azken hau planifikatzaileen kontroleratik kanpo geratu zen.
- 7.2. Stalinismoaren lorpenak
 - Politika stalinistak gizarte sobietarra erabat aldatu zuen.
 - Eraldaketaren adierazle nagusiak hauek izan ziren:
 - Hirietako biztanleriaren eta biztanleria industrialaren hazkundera.
 - Emakumeak lan-merkatuan sartu ziren.
 - Analfabetismoa atzerantz joan zen.
 - Teknologiaren garapena.
 - Herri-lan handiak gauzatu ziren: kanalak, presak, urtegiak, trenbideak, etab.

6. LEHENGO MUNDU GERRA

Zergatik, bilakaera eta ondorioak

- 1. Gerraren atariak
 - Potentzia handiek, bai europarrek, bai Europatik kanpoko potentzia berriek, Estatu Batuek et Japoniak, beraien nagusitasuna egiaztatzen zuten.
 - Hamarkada batzuetan, Mendebaldeko munduak ametsa bizi ahal izan zuen, *Belle Époque* etengabeen bizitzeko ametsa.
 - Mendebaldeak nagusitasunean oinarrituta zuen, nagusitasun hori mugarik gabeko zelakoan.
 - *Belle Époque* (frantsesez “Época Bella”): Adierazpen hori Lehenengo Mundu Gerraren aurretik sortu zen. XIX. mendearen azken hamarkadatik 1914. urtera arte, hau da, Gerra Handiaren hasierara arte igaro zen Europako historiaren garaia da.
 - Garai horren ezaugarriak honako hauek izan ziren:
 - Ekonomiaren hazkundera
 - Zabalkunde inperialista
 - Kapitalismoaren indartzea
 - Gizartearen gogobetetzea
 - Garai hori Pariseko Erakusketa Unibertsalean, 1900. urteanospatutakoa, islaturik geratu zen.
 - 1914. urteko udan, Europako Gerra Handia piztu zen, gero Lehenengo Mundu Gerra izango zena.
 - Gerrak buruzagi europarrak ezustean harrapatu zituen, nahiz eta aurretik gerra hori prestatzen aritu. Baina ezin da esan inork ez zuela gerra itxaroten.
 - 1914. urtetik aurrera gertatutakoa azaltzeko, kontuan hartu behar da potentzia nagusiak joko politikoan luze aritu zirela, buruzagi politikoak, batez ere, etengabe elkarrengandik urruntzen ari zirela.
 - Gerra batean pentsatzea posiblea zen. Hala ere, erabat pentsaezina zen gerrak norainoko aldaketak ekarriko zituen.
 - Gerra honek ondorio erabakigarriak izan zituen, eta bai Europan bai Europatik kanpo bizi ziren, adibidez Balkanetan eta Ekialde Hurbilean.
 - Gerra hau azaltzeko, 1871. urtean hasi behar dugu Alemaniako II. Inperioa sortzen denean, Frantziak Prusiaren kontrako gerra galdu ondoren (1870-1871).
 - Gerra horretan, Alemaniako Estatuak Prusiaren aldekoak izan ziren. Gerraren ondoren, Alemaniako Estatuak bateratzea eragin zen eta Alemaniako Estatu modernoak sortu zen.
 - Geroago, Prusia potentzia handi bihurtuko zen eta Frantziak, Alsazia eta Lorena galtzean. Errebatxan pentsatuko zuen.
- 2. Alemaniaren asmoa
 - XVIII. mendetik aurrera, Europaren kanpo-politika potentzien arteko “orekan” eta inoren boterea ez nagusitzean oinarritu zen.
 - Britainia Handiak, Frantziak, Austriak eta Errusiak boterea partekatu behar zuten.
 - Alemaniaren bateratze-prozesuarekin batera (1871), garai berri bat hasi zen Europako politikan eta diplomazian.
 - Orduantxe Alemania kontinentean nagusitzen hasi zen. XIX. mendearen azken urteetako munduko diplomaziaren historian, gertaerarik erabakigarriena izan zen nagusitze hori.
 - Alemania, “*Mitteleuropa*”, erdialdeko Europa zen ekialdeko eslaviarren eta mendebaldeko latindarren artean kokatua.
 - Kontinentearen erdian kokatuta egote hau arrisku bat zen.

- Alemaniarentzako arrisku beraren kontrako koalizio bat sortzen zen.
- Alemania potentzia nagusi bihurtzea
 - Alemania Europako potentzia nagusi bihurtzeak ondorioak izan zituen.
 - Nazioarteko harremanen arloan, Alemaniaren helburu nagusia interes naziolaren alde jokatzeko izan zen.
 - Bismarcken -Alemaniako kantzilerra- jarduera politikoa izan zen:
 - behin eta berriz estatuen arteko hitzarmenak bilatzen zituen, Alemaniaren aurkako koalizioak eragozteko.
 - Europa Alemaniaren inguruan egonkortzea.
- Bismarck, Alemaniako Estatu modernoaren sortzailea
 - Alemaniako kantzilerra, 1871-1890
 - Erregimen autoritarioa ezarri zuen.
 - Sufragio unibertsala onartu zen.
 - Alemaniako langile-mugimendua kontrolatu zen.
 - Hitzarmen diplomatikoak sinatu ziren (Austria-Hungaria, Errusia, Italia), Frantzia baztertzeko.
 - Alemaniak hainbat potentziarekin hitzarmenak sinatu zituen.
 - Diplomazia horren ardatzak honako hauek izan ziren:
 - Alemania Europako diplomaziaren erdigune izatea
 - Frantzia bakartzea
 - Harreman onetako politika Ingalaterrarekin
 - Austria-Hungariako Inperioari laguntza ematea, Balkanetarantz hedatzeko.
 - 1890. urtetik aurrera, Bismarck erori ondoren, Gilen II.a enperadoreak estrategia diplomatiko berria diseinatu zuen:
 - “mundu-politika” (*weltpolitik*), nazioarteko harremanen norabidea aldatu egin zen.
 - Ordutik aurrera, Frantzia bakartzea Alemaniaren helburu bakarra izan zen. Britainia Handiak munduan zuen buruzagitza kolokan jartzeko asmotan, harekin lehian hasi zen.
 - Politika honen bi adierazle:
 - itsas armada indartsu bat sortzea eta,
 - lurralde kolonialen banaketan, Alemaniak parte-hartzea eskatzea.
 - Alemaniako itsas armada sendoa sortzea 90. urteetako hamarkadan gauzatu zen.
 - Ontzidia eraikitzeak gastuak laukoiztu egin ziren.
 - Alemaniak munduko potentzia bihurtzeko zuen asmoaren ikurra itsas politika izan zen.
 - Gerraren aurreko egunetan, Alemaniako eskudrak Britainiako baina ahulagoa izaten jarraitzen zuen, baina kontinenteko bigarren itsas-armada zen.
- 3. Europako Itun politika
 - 1890. urteko hamarkadatik aurrera, bi prozesuk gerrarako bideak zabaldu zuten:
 - 1. Nazioarteko harremanek bloke gisa funtzionatzen zuten, baina ez zituzten ideologia-printzipio homogeneorik.
 - 2. Gero eta maizago gertatzen ziren gatazkak eta gerra mugatuak.
 - Europako potentzia nagusiak bi bloketan bananduta zeuden:
 - 1. Lehenengoa osatzen zuten: Alemaniak, Austria-Hungariak eta Italiak (Inperio Zentralak). Alemaniako interesa zen Balkanetan eta Inperio Otomandarrean sartzea, Errusiako Inperioari bidea ixteko.
 - 2. Entente hirukoitza izan zen (1907): Frantzia, Errusiak, Britainia Handiak

osatutakoa.

- Britainia Handiaren jarrera uler daiteke, batez ere, Alemaniaren itsasoko zabalkundeari aurre egiteko erabakia zelako.
- Frantzia eta Britainia Handiaren arteko lehia kolonialak gomendatzen zuen elkar ulertzeko.
- *Entente Cordiale* izeneko itunean, Ipar Afrikako lurraldeak banatu ziren:
 - Egipto, Britainia Handiarentzat.
 - Maroko, Frantziarentzat.
- Gatazkak eta tentsio-guneak
 - Gatazkek eta gerra mugatuak akordio eta biltzar orokorrak egitera behartu zituzten.
 - Tentsio-gune nagusiak ziren Maroko eta Balkanak.
 - Frantziak Maroko okupatu ondoren, 1904. urtean Britainia Handiak Marokoren gainetik kontrola egiaztatu zuen.
 - Alemaniak parte hartu zuen, Frantziaren kontra.
 - Krisi honetan, Alemaniak Kongo Frantsesaren zati bat lortu zuen eta bere nagusitasuna politika munduan egiaztatu zen, batez ere, itsasoan.
 - Austria-Hungariak eta Errusiak Balkanen gainetik kontrol politikoa eta ekonomikoa nahi izaten zuten.
 - Errusia itsasora irteeraren bila zegoen.
 - Austria-Hungarian, arazo bat zen Serbia Handiaren antolaketa.
 - Serbiak nahi izaten zuena serbiarren batasuna zen, 7 milioi bizi ziren Austria-Hungarian.
 - Balkanetako gerrak gertatu ziren (1912-1913), hauetan Austria-Hungariak (Bosnia kontrolatzeko) eta Errusiak (Balkanak kontrolatzeko) parte hartu zuten.
- Berrarmatzea
 - Gerra prestatu zen, oso ondo jakin gabe noren kontra izango zen.
 - Potentzia nagusiak berrarmatzen ziren, armagintzaren lasterketan.
 - Berrarmatze materialarekin batera, buruzagi politikoek, prentsak eta literaturak gerrazalekeria bultzatu zuten.
 - XIX. mendearen azkenetatik aurrera, Europan gastu militarrek gora egin zuten, nazioen aurrekontuen %40 izatera iritsi ziren.
 - Armaden ekipamendu teknologikoan egin zen aurrera.
- Berrarmatze morala
 - Berrarmatze morala harrigarriagoa izan zen.
 - Inperialismoaren eta militarismoaren kontra ahots bakarra: alderdi sozialistetakoak.
 - Abertzaletasun nazionalista agertu zen, ez bakarrik Alemanian, bai eta Mendebaldeko beste herrialde batzuetan ere.
 - Abertzaletasuna inposatu zen. Gerra hasi aurretik, ingeles batek alemaniar bat hiltzen bazuen, urkatu egingo zuten, baina gerra hasi bezain laster, ingeles batek alemaniar bat hiltzen bazuen, abertzale bat zen.
- Zergatik piztu zen gerra?
 - Adibide berezia da gerra pizteko arrazoia: gertaera isolatu batek, zergatik eragin zuen gatazka orokorra?
 - 1914. urteko ekainean, Austria-Hungariako koroaren oinordekoa, Francisco Fernando artxidukea, Sarajevo-n, Bosnia-Herzegovinako hiriburuan, izan zen bisitan.
 - Bisitaldi honetan, hil egin zuten. Hiltzailea Serbiaren aldeko bosniar bat zen, elkarte sekretuko kidea zen ("Mano Negra"). Honen helburua zen Serbia Handia osatzea eta Austriaren menpetik askatzea.

- Hilketa ez zen izan gerraren jatorria, ez zuen zuzenean gerra eragin.
- Abuztuan hasi zen gerra.
- Diplomazia-arloko elkarrizketak gertatu ziren (Vienan eta Berlinen).
- Austriak Serbiari ultimatuma bidali zion.
- Serbiak baldintza guztiak, bat izan ezik, onartu zituen.
- Orduan, Austriak Serbiaren kontrako gerra aldarrikatu zuen.
- Errusia Serbiaren defentsan irten zen eta bere atzetik estatu nagusiak joan ziren.
- Historialarien ustez, Alemania gerraren eragile nagusia izan zen, edo hobeto esanda, lurraldeak beretzeko irrika, geroago nazien garaian gertatuko zen bezala.
- Faktore bat baino gehiagoren konbinazioak eragin zuen gerra:
 - Zabalkunde inperialista eta lurraldeen defentsa.
 - Militarrek erabakitzeke autonomia zeukaten, ez zeudelako botere politikoaren menpe.
 - Buruzagi politikoaren jarrera, hauek informazioa ez zuten garbi kudeatu; anbiguotasunean egon ziren eta iritzi publikoaren ezkutuan hartu ziren erabakiak.
- Gerraren bilakaera (1914-1918)
 - Gerra azkarra zela pentsatu zen, baina lau urte baino gehiago iraun zuen.
 - 1914. urteko abuztuan hasi zen eta 1918. urteko azaroan gerraren amaiera sinatu zen.
 - Bake-litunak 1919 eta 1920. urteetan sinatu ziren.
- A/ Blokeak.
 - Urte luzeetan zehar osaturiko taldeek gerraren hasieratik parte hartu zuten:
 - Aliatuak: Britainia Handia, Frantzia, Errusia (*Entente Hirukoitza*).
 - 1914. urtean Belgika, Serbia, Montenegro.
 - 1914. urtean Japonia: Ozeano Barean kokaturiko Alemaniako koloniak okupatu eta hortik Txina kontrolatu.
 - 1915. urtean Italia: Tirolean (Trento eta Bolzano) eta Balkanetan (Trieste, Istria eta Dalmacia) interesak zeuzkan.
 - 1916. urtean Grazia, Errumania eta Portugal.
 - 1917. urtean Estatu Batuak.
 - 1918. urtean Errusiak gerra utzi zuen (Errusiako gerra zibila hasi zen).
 - Inperio zentralak : Austria-Hungaria, Alemania, Otomandar Inperioa, Bulgaria
 - Europan, Espainia, Suitza, Holanda eta Eskandinabiako herrialdeak (Suedia, Danimarka eta Norvegia) salbu, gainerako herrialdeak gerran sartu ziren zuzenean edo zeharka.
 - Hasieran, Europako gerra zibil bat izan zen. Gero sartu ziren lehian Estatu Batuak eta Japonia. Azkenerako mundu-mailako gatazka izatera iritsi zen.
 - Estatu Batuak gerran
 - Estatu Batuak gerran sartu ziren 1917. urteko udaberrian.
 - Berri historikoa izan zen, bere tradizio isolazionistagatik.
 - **Zergatik ?**
 - Munduko politikan Europako potentzien protagonismoa ahultzeko, batez ere, Alemaniarena.
 - Potentzia aliatuekin zituzten interes ekonomiko handiak
 - Bakea antolatzeke (boterea, lurraldeen banaketa, eragina).
 - Wilson lehendakariaren borondate politikoa, hau da, gerra irabaztea

demokrazia hedatzeko eta inperioak eta autokraziak deuseztatzeko.

- **Norekin?**
 - Hainbat armada-talde bidali zituen Europara eta aliatuei eskaini zien.
 - Parte-hartzea erabakigarria izan zen, Errusia ekialdeko frontean lur jota geratu zelako.
 - Aurrerantzean, gerraren balantza aliatuen alderantz makurtu zen.
- Bloke bakoitzaren baliabideak ez ziren berdinak:
 - Ententeko herrialdeek gerrarako ekipamendu handiagoa zuten, eta demografian, ere pisu handiagoa zuten (238 milioi biztanle).
 - Dena den, inperio zentralen armadak prestakuntza tekniko hobea zuten, mugikortasun handiagoa eta leku geoestrategiko egokiagoa.
- **B/ Fronteak**
 - Europan:
 - Frantziako iparraldea eta ekialdekoa.
 - Ekialdeko frontea (Prusia eta Ukraina)
 - Haiei beste gune batzuk gehitu behar zaizkie: Italiako ipar-ekialdea.
 - Europako kontinentetik kanpo:
 - Alemaniako kolonietan: Ozeano Barean (Japonia) eta Afrikan (Britania Handia eta Frantzia)
 - Ingelesak, Mesopotamian
 - Arabiako Lawrence 1888-1935
 - Arkeologo eta militar ingelesa izan zen. Arabiako Lawrencek arabiarrek elkartu zituen otomandar armadaren kontra borrokatzeko eta arabiarren askatasuna lortzeko. Arabiarren asmoa berezko gobernu sortzea zen. Lehenengo Mundu Gerrak Israelen eta Palestinaren arteko gatazka sortu zuen, gaur egun mantentzen dena. *“Los siete polares de la sabiduria”* idatzi zuen.
 - Fronte horiei gehitu behar zaie itsasoko gerra.
 - Bi bataila garrantzitsu baino ez ziren gertatu:
 - Jutlandiako bataila (1916), Alemania eta Ingalaterraren artean
 - Ozeano Atlantikoko gerra. Merkantzia-ontzi ingeles bat, herritar iparamerikarrak zihoazen barruan, hondatu izan zen (1915). Orduetik aurrera, Estatu Batuak gerran sartzen pentsatzen hasi ziren.
 - Itsasoko gerraren estrategia itsaspeko gerrara aldatu zuen. Britainia Handiko itsas armadak ezarritako blokeoari Alemaniak aurre egiteko modu bakarra zen itsaspean borrokatzea.
- **D/ Baliabideak eta estrategiak**
 - “Masen” benetako lehen gerra izan zen, bai zibilek bai soldaduek gerra jasan zuten.
 - Aurrerapen teknologiko izugarriak erabili ziren: itsaspekoak, gerra-hegazkinak, gasak (pozoitsuak), tankeak.
 - Lubietako gerra bat izan zen, eta heriotza asko eragiten zituen.
 - Potentzia aliatuek itsas blokeora jo zuten eta horrek populazio zibilari ondorio larriak ekarri zizkion (Alemanian).
 - Alemaniarrek gas toxikoak erabili zituzten.
 - Karga azkarreko fusilak eta metrailadoreak erabili izan ziren.
 - Abiazioak hirietara eta industriagunetara bonbak jaurti zituen. Londres eta Paris behin eta berriz Alemaniako zepelinen helburu.

- Gerra-gurdiak hartu zuten zalditeriaren lekua. Nahiz eta gerra-gurdiak erabili, zaldiek protagonismo handia izaten jarraitu zuten gerran eta era askotako funtzioak bete zituzten. Tratu txarrak eman zizkieten.
- Fronteez gain
 - Lehenengo erabateko gerra izan zen.
 - Berrikuntza bat: gerra zabaltzea, gatazka guztietara zabaldu zen.
 - Fronteez gain, lurralde osoa da gerrako lurraldea.
 - Horren ondorioz, XX. mendeko gerretako biktima zibilak militarrek baino askoz gehiago izan dira.
 - Ahalegin handia beharrezkoa izan zen, gerra antolatzeko:
 - Milioika gizon fronteetara eraman izan ziren.
 - Armada mugitzea eta fronteen hornitzea: trenaren erabilera.
 - **Emakumeek** lantegietara joan behar izan zuten.
 - **Estatuak** era aktiboan esku hartu behar zuen ekonomian: prezioak finkatuz, ekoizpena bideratuz eta merkatuak erregulatuz.
 - Herrialde neutraletan, gerrak industria eta merkataritza bultzatu zituen, adibidez, Espainian hori gertatu zen. Euskal Herriko industria sendotu zen, enpresa sortuz eta ekoizpena eta esportazioak handituz.
 - Nahiz eta sozialistek hasieratik gerra uko egin, gerraren aurkaritzak ez zuen aurrera egin 1916. urteko amaierara arte, aurkako mugimenduak hasi ziren armadaren eta langileen artean.
- Gerraren amaiera
 - Potentzia aliatuek eta Alemaniak gerraren amaiera sinatu zuten 1918. urtean.
 - Alemanian sozialdemokratek lehendakaritza hartu zuten, biztanleriaren nahigabea eta gerra amaitzeko guraria hedatu zelako.
 - Berlin-en errepublika aldarrikatu zen, Gilen II.a abdikatu ondoren.
 - *“Azaroaren Iraultza”* hasi zen, sozialismora pasatzeko. Gerra zibil bihurtu zen, mugimendu sozialista bananduta zegoelako. Porrot egin ondoren, 1919. urtean Errepublika federala eta parlamentarioa ezarri zen.
 - Inperio zentraletako porrota
 - Inperio zentraletako porrotaren arrazoiak askotarikoak izan ziren.
 - Estatu Batuak gerran sartzea: laguntza eman zuten, potentzia ekonomiko handia izateagatik. Potentzia aliatuen gerra-gastuak inperioarenak baino askoz handiagoak izan ziren.
 - 1917. urtetik Austria-Hungariako Inperioaren gainbehera, banaketa nazionalen eta gizarte asalduraren ondorioz.
 - Alemanian, politika militarren kontrako nahigabea handitu zen, horregatik bere erakunde politikoak aldatu ziren, Wilsonnek eskatu zuen moduan.
 - Gerraren balantzea: kostu handiak
 - 65 milioi gizon inguru mobilizatu ziren.
 - Horietatik, 9 milioi gerran hil ziren eta beste horren beste zauritu ziren.
 - Hildako zibilak eta izurriek hildakoak, 1918. urteko espainiar gripearen ondorioz.
 - Europan, gripe horrek 6 milioi lagun inguru hil zituela uste da.
 - Gerrako hildako gehien Frantziak izan zituen: 1913. urteko biztanleriaren %3,28 galdu zuen gerran.
 - Alemaniak, Austria-Hungariak eta Errusiak ere galera handiak izan zituen.
 - Europak nazioartean zuen posizioa ahuldu zuen gerrak. Produktu manufakturatuen munduko merkataritzan zuen parte-hartzea nabarmen

beheratu zen.


- Estatu Batuek bereganatu zuten nagusitasun ekonomikoa.
 - Europako herrialdeak Estatu Batuetan zorretan egon ziren. Gerran egindako zorrak Estatu Batuei ordaindu behar zizkieten.
 - Ekonomiaren arloan: langabezia, inflazioa (prezioen gehitzea), eta gizarte-talde batzuen pobretzea.
 - Gainera, galera materialak.
 - Europan zehar hedatu zen “bolada gorria”, sobietar ereduaren eraginaren ondorioz.
 - 1918. urtean, iraultza piztu zen Alemanian, iraultza sozial eta politikoa nahi zuten iraultzaileek, Sobietar Batasunaren moduan.
 - “Arrisku boltxebikea” hedatu zen Alemaniatik, baina altxamendua menderatu zuen gobernuak.
 - Austria eta Hungarian ere saiaketak bizi ziren.
 - Gatazkak eta langile grebak asko izan ziren Europan 1919. urtetik 1921. urtera.
 - Eztabaidatzen zena zen nortzuk ordaindu behar zituzten gerraren gastuak.
 - Hasieran, erantzun politikoak joera erreformista eta ezkerrekoa izan ziren: Alemanian, Frantzia, Britainia Handian, Austriar.
 - Gerrak ekonomia-ereduaren aldaketa ekarri zuen: merkatuen mekanismoaren orde, planifikazioa eta Estatuak esku-hartzea nagusitu zen.
 - Ideia horiek ere aplikatu ziren gerraren ondorengo sortutako gobernu autoritarioetan eta faxistetan.
- Bake-Itunak
- Sarajevon gertatutako hilketatik bost urtera, lehenengo bake-ituna sinatu zuten aliatuek Alemaniarekin, Versaillesen buruzagi alemaniarrak ez egon arren. Ez zitzaien deitu.
 - Bakearen antolaketa oso zaila izan zen, bi arrazoik azaltzen dute:
 - Herrialde irabazleen arteko banaketa, bakoitzak bere helburua zeukan.
 - Galtzaileak negoziatio-mahaian ez egotea, ez eta bakea bermatzeko sortutako erakunde berrian ere, hau da Nazioen Elkartean. Hiru potentzia nagusiak, Alemaniak, Errusiak eta Estatu Batuek ez zuten parte hartu.
 - Hitzarmen ezberdinak sinatu ziren herrialde galtzaileekin (Alemania, Austria-Hungaria, Bulgaria eta Turkia).
 - Protagonismoa “lau handiek” izan zuten: Britainia Handiak, Frantziak, Estatu Batuek eta Italiak.
 - Ondorio garrantzitsuenak honako hauek izan ziren:
 - Inperioen gainbehera
 - Europako mapa berriaren sorrera
 - Ekialde Hurbilaren banaketa, eragin-gune berriak sortu ziren
 - Nazioen Elkartearen jatorria
 - Alemaniarekin Versailleseko Ituna (Frantzia): 1919ko ekainaren 28an.



- Bulgariarekin Neuillyko Ituna (Frantzia): 1919ko azaroaren 27an.
- Austriarekin Saint Germaineko Ituna (Frantzia): 1919ko irailaren 19an.



- Hungariarekin Trianoneko Ituna (Versaillese-Frantzia): 1920ko apirilaren 20an.
- Turkiarekin Sèreseko Ituna (Frantzia): 1920ko abuztuaren 10ean.



- Alemania.
 - Gerraren erantzuleztat hartu zuten.

- Lurraldeak eta koloniak galdu zituen.
- Zigor gisa: bitan banatu zen, baina Polonia kokatuta zegoen erdian (Poloniako itsas pasabidea).
- Ekialdeko Prusiako erresuma zatitu zen.
- Alsazia eta Lorena Frantziari itzuli behar zizkion.
- Armada murriztea eta dirutza handiak ordaindu beharra, aliatuen galtzeengatik.
- Kantitatea eta ordainketa-era definitu gabe geratu ziren. Horrek arazoak ekarri zituen Bigarren Mundu Gerrara arte.
- Europako mapa berria
 - Inperioen gainbehera
 - Austria-Hungaria: bi estatu sortu ziren (Austria eta Hungaria), biek lurraldeak utzi behar zituzten.
 - Errusia: Finlandia, Estonia, Letonia eta Lituaniak independentzia lortu zuten.
 - Turkia: errepublika demokratikoa ezarri zen 1923. urtean.
 - Herrialde berriak
 - Txekoslovakia
 - Jugoslavia: Serbia, Montenegro, Kroazia, Eslovenia, Bosnia eta Mazedoniaren iparraldea.
 - Albania.
 - Polonia: independentzia lortu zuen 1918. urtean eta Errusia, Austria eta Alemaniatik lurraldeak hartu zituen.
 - Lurralde-aldaketak
 - Errumania: zabaldu zen, bere hedapena bikoiztu zen (Transilvania-Hungaria, Banato, Berasabia, etab.) eta biztanleria hirukoiztu zen.
 - Bulgaria: zenbait lurralde galdu zituen, bai eta Mediterraneo itsasora irteera ere (Trazia).
 - Italia: Alto Adigio (Austriatik), Istria eta Trentino lortu zituen (Balkanetatik), baina ez Dalmazia.
- Nazioen Elkartea
 - Wilson lehendakariak, Estatu Batuetako Kongresuan egindako hitzaldian, bakea lortzeko ideiak adierazi zituen.
 - 14 puntutan bildurik geratu ziren, bi ziren garrantzitsuenak:
 - Nazionalitateen ezartzea eta
 - Nazioen gaineratik egongo zen erakunde bat sortzea, bakea bermatzeko eta potentzien arteko akordioak lortzeko.
 - 1920. urtean Estatu Batuetako hauteskundeetan errepublikanoek irabazi zuten. Horregatik, Kongresuak elkarte berrian parte-hartzeari uko egin zion. Isolazionismora itzuli zen.
 - 1946. urtean disolbatu ze eta bere lekua NBE-k hartu zuen.

7. LEHENENGO MUNDU GERRAREN ONDORIOAK

Ekialde Hurbila, Balkanak, Kurdistan.

- Ekialde Hurbila
 - Asiako Hego-mendebaldea.
 - Arabiar herrialde hauek osatzen dute: Israel, Libano, Siria, Irak, Jordania eta Arabiako penintsulan kokatutako daudenek, hau da, Saudi Arabia, Yemen, Oman, Arabiar Emirerri Batuak, Qatar, Barein eta Kuwaitek. Eskualde horri Egipto gehitu ahal zaio.
 - Eskualde horren mugak: mendebaldetik, Egipto eta Itsaso Gorria; ekialdetik, Iran eta Persiako Golkoa; iparraldetik, Turkia eta Mediterraneo Itsasoa, eta hegoaldetik, Indiako Ozeanoa.
 - Desberdindu beharra dago:
 - Ekialde Hurbila: aipatu dugu dagoeneko
 - Ekialde Ertaina: lau herrialde musulmanek, baina ez arabiarrek, osatzen dute: Turkia, Iran, Afganistan eta Pakistanek.
 - Historiaren bilakaeran, Ekialde Hurbilean XX. mendearen erdialdean deskolonizazio-mugimendua hasi zen, zeinek arabiar herrialdeen independentzia eta autonomia ekarri zituen berekin.
 - Lehenengo Mundu Gerrara arte, lurralde horiek Otomandar Inperioaren menpe egon ziren.
 - Gerra amaitu ondoren, *nazioarteko mandatu-sistema* izatera pasatu ziren. Europako potentzia nagusiek, hau da, Britainia Handiak eta Frantziak kontrolatu zituzten Nazioen Elkartearen izenean.
 - Mandatu-Sistema
 - Otomandar Inperioaren menpe zeuden lurraldeak:
 1. Siria (Frantzia)
 2. Libano (Frantzia)
 3. Palestina (Britainia Handia)
 4. Transjordania (Britainia Handia)
 5. Irak (Britainia Handia)
 - Alemaniaren menpe zeuden lurraldeak:
 1. Britainiar Togo (Britainia Handia)
 2. Frantziar Togo (Frantzia)
 3. Britainiar Kamerun (Britainia Handia)
 4. Frantziar Kamerun (Frantzia)
 5. Ruanda-Burundi (Belgika)
 6. Tangarika (Britainia Handia)
 7. Gaur egungo Namibia
 - Bi mundu gerren arteko garaian, mandatu-sistemaren menpe antolatutako arabiar lurraldetik Asiako hego-mendebaldeko arabiar estatu independenteak sortu ziren.
 - Lehenengo herrialde deskolonizatuen multzo bihurtu zen.
 - Gaur egun Ekialde Hurbileko eskualde geo-historiko hori interes-gune gisa mantentzen da.
 - Bi faktorek Ekialde Hurbileko protagonismo historikoa azaltzen dute:
 - Ekonomiaren arloan, 1908. urtean lehenengo petrolio-hobia zabandu zen eta Lehenengo Mundu Gerran zehar balio handikoa zela egiaztatu zen.
 - Politiko-administratiboaren arloan, 1919. urtean Versailleseko Itunaren bidez,

arabiar eskualde horren gainetik mandatu-sistema ezarri zen.

XX. mendean zehar bi funtsezko faktore horiei beste batzuk gehitu zitzaizkien, eta guztiek Ekialde Hurbila nazioarteko gaurkotasunaren eszenatoki bihurtu dute.

- 1914. urtera arte, Ekialde Hurbila Otomandar Inperioaren menpe egon zen. Horregatik, Gerra Handian Alemaniarekin Otomandar Inperioaren parte-hartzeak ondorioak ekarri zituen eskualde horren gainean.
- Gerra eta gero, Europako potentzia nagusiak lehian sartu ziren, Otomandar Inperioak utzitako lekua hartzeko.
- XIX. mendearen bukaeratik, beste indar batzuek lehia honetan ere parte hartu zuten. Indar horiek beraien eskubide historikoetan oinarritu ziren asmo nazionalistak lortzeko eta eskualde honetan finkatzeko.

Beraz, Lehenengo Mundu Gerraren garaian lau indar historikok Ekialde Hurbilean jokatu zuten.

- Gaur egunera arte bere joko politikoak eskualde honen bilakaeran eragina izan du. Hauetako bi kanpokoak dira, baina lurralde horiek kontrolatu dituzte:
 - Otomandar Inperioak, lurralde horien gainetik ahalmena utzi zuen, Gerra Handian garaitua izan ondoren.
 - Britainia Handiak eta Frantziak, gerran garaitzaileak, Turkiaren lekua hartu zuten eta arabiar lurraldeen gainetik kontrola ezarri zuten, alde batetik, petrolio kontrolatzeko, beste aldetik, alemaniarren, eta geroagoa, errusiarren aurkakoak izateagatik.
- Beste bi indarrak eskualde horretako jatorrizkoak dira eta eskubide historikoak alegatzen dituzte:
 - Arabiar nazionalismoa, hau da, arabiar herrialdeak. Otomandar Inperioaren menpe egon ondoren, independentzia lortzeko asmoa dute, bai eta arabiar nazio handia antolatzeko ere.
 - Mugimendu sionista: garai hartan nazioarteko laguntza lortu zuen Palestinan judu-estatua osatzeko.
 - Europako potentziek bi mugimendu horiek bultzatu eta maneiatu zituzten.
 - Arabiar nazionalismoa eta sionismoa haien artean borrokatu ziren.
- Hortaz, Lehenengo Mundu Gerrak faktore horiek piztu zituen eta Ekialde Hurbileko lurralde antolaketa eta egoera politikoa aldatu zituen. Esan daiteke gaur egungo munduaren arazo handiek deskolonizazioan edo Bigarren Mundu Gerran beraien jatorriak dituztela. Hala ere, Ekialdeko Hurbilek jasaten dituen arazoak Lehenengo Mundu Gerran sortu ziren. Bi arazo garrantzitsuenak honako hauek dira:
 - Mugen diseinua
 - Arabiarren eta israeldarren arteko gatazkaren nazioarteko hedapena.
- Arabiar nazionalismoa
 - Arabiar nazionalismoa XIX. mendearen bukaeran sortu zen.
 - Autore batzuen ustez, mugimendu horren ezaugarriak honako hauek dira:
 - Arabiar hizkuntza hitz egitea, zenbait aldaera izan arren.
 - Lurraldea
 - Historia eta kultura bera izatea (erlijio musulmana)
 - Bere identitatea aldarrikatzen dute arabiarrek.
 - XVI. mendetik Otomandar Inperioak arabiar herrialdeak menperatu zituen. Horregatik, iragan distiratsuen ondoren, XIX. mendearen erdialdean arabiar

- herrialdeek menpekotasun politikoa eta soziala jasaten zuten, eta horrekin batera, gainbehera kulturala eragin zen.
- Hortaz, XIX. mendearen bigarren erdialdean zehar, nortasun-kontzeptu berri bat sortzen hasi zen, independentzia eta arabiar batasuna lortzeko asmoz.
 - XX. mendearen hasieratik, Otomandar inperioak politika zentralista ezarri zuen (“*Turkiar gazteen Iraultza*”), arabiar biztanleria baztertuz. Arabiarren nahigabea ekarri zuen, eskubideen berdintasuna eta arabiar hizkuntzaren erabilera eskatuz, kultura elkarteen bidez.
 - Lehenengo Mundu Gerraren atarian, oraindik gutxiengoan zeuden elkarte nazionalistak.
 - Elkarte politikoak eta kulturalak Libano, Siria eta Irak-en agertu ziren, baina ezinezkoa zen herritar mugimendu iraultzailean pentsatzea.
 - Beste aldetik, 1904. urtean Parisen “Arabiar Aberrien Elkarte” sortu zen, bai eta idazkerak (*Le reveil de la nation árabe dans l'Asie turqie*) eta aldizkariak (*L'Independence árabe*) ere.
 - 1913. urtean Parisen Arabiar Biltzar Nazionala ospatu zen, baina parte hartu zuten liderrak atxilotu zituzten.
- Sionismoa edo juduen nazionalismoa
 - Sion sinbolo bat da, Jerusalemen altxatzen den muino bat da.
 - Sionismoaren lehenengo urratsak XIX. mendearen erdialdean sortu ziren.
 - Arabiar eta juduen nazionalismoaren arteko ezberdintasuna hau da:
 - Arabiar nazionalismoaren helburua arbasoen lurraldean finkatuta dagoen herrialde homogeenaren susperraldia da.
 - Juduen nazionalismoa, hala ere, mundutik sakabanatuta dagoen herrian garatu da, horregatik honen helburua Palestinara juduen itzulera da, jatorrizko aberria baita, eta lurralde horretan estatu-nazio independentea osatzea.
 - Sionismoaren barnean korrante mistika existitzen da.
 - Korrante horren sustraiak judaismoan eta judu herriaren kontzientzia kolektiboan daude.
 - Judu-herria herri herratua da, VII. mendean (Kristo baino lehen) juduen erbestaldia hasi zen.
 - Finkatzeko lurralderik eta batasunik ezak aberri espiritualaren sorrera eragin zuen.
 - Judu herriaren batasuna *Judaismoan*, judu herriaren erlijioan oinarritzen da (Torá), diasporan judaismoa bizirik mantenduz.
 - XIX. mendearen erdialdean judu erlijiosoek idazkerak agertzen hasi ziren, Palestinara juduen itzulera eta judu nazioaren sorrera bultzatuz.
 - Mende honen azken hamarkadetan sortutako antisemitismoak -Polonian, Errusian, Alemanian- bultzada handia eman zion sionismo politikoaren antolaketari.
 - Lehenengo elkarteak agertu ziren Palestinara emigrazioari mesede egiteko, bai eta lurralde horietan nekazaritza koloniak ezartzeari ere; adibidez, “Sionen Lagunak” edo “Israeldar Elkartasun Unibertsala”.
 - Diru-laguntzak ekimen pertsonaletik ere etorri ziren, Rotschild bankarien familia esate baterako.
 - Garai horretan Teodoro Herzl-ek bere liburua “Judu Estatu” (*El Estado judío*) argitaratu zuen.
 - Liburu honetan, bere tesia aurkeztu zuen: antisemitismoa amaitzeko beharrezkoa zen juduen berrantolaketa zentro autonomoan, “juduen Estatuan”. Estatu hori berezko lurraldean, hau da, Palestinan, berriz sortu behar izan zen.

- Judu-nazionalismoaren ideologia sortzeaz gain, judu-estatua sortzeko oinarri politikoak ezarri zituen, bi erakunderen bidez:
 - bata, oinarri politikoak ezarriko zituen judu-estatua sortzeko, eta
 - besteak, horretarako diru-laguntzak lortu zituen.
- 1897. urtean sionismoa hedatzeko egunkari bat sortu zuen (*Die Welt*) eta Basilean Lehenengo Mundu Biltzarra antolatu zuen.
- Biltzar honetan Europa, Amerika eta Ipar Afrikako ordezkariak bildu ziren.
- Biltzar honetatik *Sionista Mundu Elkarte*a sortu zen, munduko elkarte guztiak biltzeko eta erabaki komunak hartzeko.
- 1901. urtean Judu-Banku Nazionala antolatu zen.
- Aldi berean, munduko potentzia nagusien buruzagiekin harremanak ezarri ziren, judu-estatu berriaren lurraldea lortzeko.
- XX. mendearen hasieran Britainia Handiak juduei lurraldeak eskaini zizkien Sinai, Zipre edo Ugandan.
- Juduen gehiengoak, biltzar nagusian bilduta, akordio bat hartu zuen: “Sion gabe ez dago Sionismorik”.
- Handik aurrera funtsezko oinarria Palestinara itzulera izango zen.
- Lehenengo Mundu Gerra
 - Lehenengo Mundu Gerran zehar, Ekialde Hurbila eszenatoki militar bihurtu zen.
 - Bakeak eskualde honen gainetik Europako potentzia nagusien menpekotasuna ekarri zuen.
 - Britainia Handiak eta Frantziak interesak zeuzkaten, bai politikoak (inperialismoa hedatzeko eta Egiptoko muga finkatzeko) bai ekonomikoak (petrolio-hobiak eta Indietako merkataritza kontrolatzeko).
 - 1915-1916. urteetan Britainia Handiak itun bat proposatu zien arabiar penintsulan ezarritako buruzagiei: “*arabiar iraultza*” turkiarren kontra eta, horren truke, arabiarren nazioa sortzeko laguntza.
 - 1916. urtean “*arabiar iraultza*” hasi zen Britainia Handiaren laguntzaz.
 - Iraultza honetan Arabiako Lawrencek parte hartu zuen arabiarren alde.
 - Arabiarrek ia ia Arabiako penintsula osoa konkistatu zuten.
 - 1917. urtean “*arabiarren erregea*” aldarrikatu zen. Britainia Handiak eta Frantziak soilik Hedjaz-eko erregetzat hartu zuten.
 - 1918. urtean Britainia Handiaren eta arabiarren arteko koalizioak turkiarren kontra borrokatzen jarraitu zuen.
 - Aldi berean, 1916. urtean Britainia Handiak eta Frantziak “*Sykes-Picot akordioa*” sinatu zuten: arabiar lurraldeak banatu ziren bi potentzien artean, bi mandatu osatuz.
 - Azkenean, 1917. urtean Britainia Handiak juduekin hirugarren akordioa sinatu zuen, “*Balfour-en Aitorpena*” delakoa, eta Estatu Batuek eta Frantziak onartu zuten. Akordio honen arabera, Britainia Handia juduei laguntzeko prest zegoen, Palestinan aberria ezartzeko.
 - Akordioak bata bestearen aurka zeuden.
- Gerraren amaiera
 - Otomandar Inperioak gerra galdu ondoren, bi indar lehian sartu ziren:
 - Alde batetik, arabiar nazionalismoa, independentziaren aldekoa. 1919. urtean Arabiako Independentziaren Alderdia sortu zen, eta urtebete geroago, Damaskon independentzia aldarrikatu zuen. Feysal errege berriaren aginpean, Siria, Libano, Palestina eta Transjordanian bildu ziren. Aldi berean, Irakek bere

- independentzia aldarrikatu zuen, Abdullah erregea izanik.
 - Beste aldetik, Britainia Handiak eta Frantziak mandatusistema ezarri zuten Sévres-eko Itunean (1920). Frantziak Feysali ultimatuma bidali zion, Damasko okupatu zuen eta, ondorioz, Feysalek alde egin behar zuen.
- Mandatu-sistema ezarri baino lehen, Wilson lehendakariak ikerketa-batzorde bat bidali zuen.
- Batzorde honek aurkeztutako ondorioak honako hauek izan ziren: arabiarrek juduen inmigrazioaren kontra zeuden, bai eta mandatu-sistemaren egitasmoaren kontra ere.
- Bake-Konferentziak ez zituen kontuan hartu.
- Versailleseko Itunak mandatu-sistema arautu zuen.
- Arabiar Nazioaren egitasmoa. Arabiar nazioak banandurik:
 - Egipto: Independentzia lortu zuen 1922an
 - Arabiako penintsula: 5 monarkiak independentzia lortu zuten, baina borrokan egon ziren. 1932an bildu eta Saudi Arabia sortu zen.
 - Yemen: 1919an independentzia lortu zuen eta erresuma antolatu zen 1934ra arte.
 - Ekialdeko eta hegoaldeko eskualdeak: Britainia Handiaren menpe XIX. mendean zehar, independentzia lortu 50-70 urteetan.
 - Mandatuak:
 - Irak: independentzia 1932. urtean.
 - Siria eta Libano: independentzia 1946an.
 - Transjordania: independentzia 1946an.
 - Israleko Estatuak: independentzia 1948an .
- Ekialde Hurbila 1914. urtean.
 - 1914. urtean, Lehenengo Mundu Gerra hasi aurretik, Ekialde Hurbila otomandar Inperioaren menpe zegoen, Arabiako penintsula salbu.
 - Oraindik arabiar nazioak ez dira sortu, ez dira osatu gaur egun ezagutzen ditugun bezala.
 - Baina ezberdindu beharra dago:
 - Alde batetik, Irak, Siria eta Libanoko eskualdea, non arabiar elkarte sekretuek Britainia Handiaren eta Frantziaren laguntza bilatzen zuten turkiarren kontra borrokatzeko.
 - Beste aldetik, Arabiako penintsulan osatutako arabiar erresumak autonomiaz bizi ziren eta buruzagi tradizionalak, feudalek eta gudariak gobernatzen zuten.
 - Hauetako bat Hussein da, zeinek Hedjaz-eko eskualdea kontrolatzen duen. 1914. urtean Hussein El Cairen britainiarrekin harremanetan jarri zen eta negoziatu zituzten turkiarren kontrako borrokaren baldintzak. Negoziazio hauetan Lawrencek parte hartu zuen eta arabiar buruzagiak biltzea lortu zuen, Arabiako penintsula kontrolatzeko eta turkiarrak botatzeko. Aqaba konkistatu zuten eta leku estrategiko bihurtu zen gerran.
 - 1916. urtean “arabiar iraultza” hasi zen, britainiarren eta Lawrencek laguntzarekin.
 - Hussein “arabiarren errege” aldarrikatu zen, Frantziak eta Britainia Handiak soilik Hedjazeko erregetzat hartu arren.
 - Gerra jarraitu zuten 1918. urtera arte. Arabiarrek ia-ia penintsula osoa okupatu zuten.
 - 1916. urteko “Sykes- Picot” akordioak eta 1917. urteko “Balfour-en Aitorpena”k arabiar egitasmoari amaiera eman zioten.

- 1919. urteko Versailleseko Itunak “mandatu-sistema” ezarri zuen eta San Remoko Konferentzian legezatu zen (1920).
- Aldi berean, Palestinan 1910. urtetik, lehenengo baserri kolektiboak sortu ziren (“kibutz”).
- Kolonizazio-prozesua hasi zen: lurren erosketa eta biztanleriaren finkapena.
- Nekazaritza, abeltzaintza eta eskulangintzan ziharduten.
- Immigrazioa nabarmen handitu zen. Lehenengo judu horiek Israelgo estatuaren fundatzaileak izan ziren, geroago “talde pribilegiaduna” izango zen.
- Gerren arteko garaian
 - Juduek erakunde propioak garatu zituzten eta, 1933. urtetik, Europako antisemitismoak emigrazioari mesede egin zion.
 - Arabiar nazio berriak sortu ziren: Egipto (1922), Saudi Arabia (1932) eta Irak (1932). Bakoitzak bere interesak zeuzkan.
 - Palestinan, arabiarren eta juduen arteko gatazkak hasi ziren.
 - Britainia Handiak bi estaturen sorrera onartu zuen (1937): juduena eta arabiarrena. Geroago, Estatu bat partekaturik (“Liburu Zuria”, 1939). Hau da, irtenbidea ez zegoen argi.
- Bigarren Mundu Gerra
 - Palestinako judu eta arabiar boluntarioek britainiarrei laguntza eman zieten Siriaren eta Iraken kontra borroka egiteko.
 - Genozidioak judu-estatu baten sorrera bultzatu zuen. 1942. urtean, New Yorken bildurik, sionistek eskatu zuten.
 - 1944. urtean, juduek bi armada antolaturik zeuzkaten: Haganah eta Palmach, bai eta erakunde politikoak ere.
 - Britainiar, judu eta arabiarren arteko akordiorik eza irtenbide bat aurkitzeko.
 - NBEaren Asanblada Orokorak erabaki zuen (181/II 1947.11.29 an):
 - Britaniar mandatuaren amaiera 1948. urtean
 - Britainia Handiak Palestina utzi ondoren, bi estatu sortzea (lurraldearen % 56 juduentzat, % 46 arabiarrentzat)
 - Gerra zibila hasi zen Palestinan
 - 1948. urteko maiatzaren 14-15ean: britaniar mandatuaren amaiera eta Israelgo Estatu aldarrikatu zen.
 - Estatu Batuek eta Sobietar Batasunak onartu zuten.
 - Arabiarren eta israeldarren arteko lehenengo gerra hasi zen (1948-1949).
 - Gerraren ondoren, Israelek Palestinako lurraldearen % 78 okupatu zuen. Egiptok Gaza administratu zuen eta Jordaniak Zisjordania anexionatu zuen.
- Palestinako Arabiarrak (1949):
 - Gerraren aurretik 1 500 000 bizi ziren, erdia soilik gertatu:
 - Israel: 170 000
 - Zisjordania: 570 000
 - Gaza: 70 000
 - Errefuxiatuak (+700 000):
 - Jordania, Siria, Libano, Gaza. Errefuxiatu-esparruetan bizi ziren eta NBEren laguntza jaso zuten (1950. urtetik).
- Israeldarren eta arabiarren arteko gerrak (1967.koa eta 1973.koa)
 - 1967. urteko gerran Israelek Sinai penintsula, Gaza, Zisjordania eta Golan okupatu zituen.
 - 1973. urteko gerraren ondoren, Israelek Sinai penintsula Egiptori itzuli zion.

- Handik aurrera Israelek lurralde hori mantendu du, Gazan eta Zisjordanian kolonizazio prozesua hasiz.
- Balkanak
 - 1. Otomandar Inperioa XVI-XVII
 - XVI. mendean Otomandar Inperioak Balkanak okupatu zituen. Potentzia militar horrentzat garai distiratsua izan zen.
 - XVII. mendean geldialdian murgildu zen eta XVIII. mendean bere gainbehera heldu zen.
 - XIX. mendean zehar Balkanetako zenbait herrialdek independentzia lortu zuten:
 - Grezia 1830. urtean, Independentzia gerraren ondoren (1821-1830). Baina Europako potentziek, hau da, Britainia Handiak, Frantziak eta Errusiak kontrolatu zuten.

Jorge I “Heleniarren erregea”

 - Europako potentziek proposatu eta bultzatu arren, Greziako Batzarrak onartu zuen.
 - Erregealdiak 50 urte iraun zituen.
 - Greziako lurraldeak zabaldu zituen.
 - 1863. urtetik aurrera, monarkoa berri bat ezarri zen Grezian, Jorge I. arekin (1863-1913), Danimarkako Printzea, hiru potentzia horiek bultzatuta. Monarkia hori mantendu zen 1973. urtera arte.
 - Errusiaren eta Otomandar Inperioaren kontrako gerraren ondoren (1877-1878), *Berlingo Kongresua* ospatu zen, Balkanetako eskualdea berrantolatze eta eskualde honen gaineko interesak adosteko. Britainia Handiak, Frantziak, Austria-Hungariako Inperioak, Italiak, Alemaniak, Errusiak eta Otomandar Inperioak parte hartu zuten.
 - Independentzia:
 - Errumania
 - Bulgaria: 1878. urteko Bulgariako Printzerri Autonomoa antolatu zen eta 1908. urtean bere subiranotasuna lortu zuen.
 - Serbia
 - Montenegro
 - Bosnia-Herzegovina Austria-Hungariaren menpean jarri zuten.
 - Zipre Britainia Handiaren menpean jarri zuten. Garai hartan Kroazia eta Eslovenia Austria-Hungariako Inperioaren menpean zeuden, autonomiaz bizi arren. Adibidez, berezko legebiltzarra zeukaten.
 - 1.1. Nazionalismoa
 - XIX. mendearean bukaeran nazionalismoa garrantzia hartzen hasi zen Austria-Hungarian. Baina, Hiru korrante lehian sartu ziren:
 - 1. Europako Ekialdeko eslaviarren batasuna: kroaziarrek, serbiarrek (Inperioan bizi zirenak) eta esloveniarrek osatuko zuten, Jugoslavia sortzeko asmoz. Hiru herri horiek hizkuntza bera erabiltzen zuten, baina alfabetu ezberdinez (grafia eta fonetika). Tesi honen arabera, sortutako entitate politiko berria independentea edo autonomoa – Austria-Hungariako monarkiaren barnean- izango zen.
 - 2. Kroaziako nazionalismoa
 - 3. Serbiako nazionalismoa, Serbia Handia sortzeko.
 - Zenbait egitasmo proposatu ziren entitate politiko berri hori sortzeko, ekialdeko eslaviarrak batzeko, Inperioaren gainbehera aprobeztatuz.

- 2. Balkanetako gerrak 1912-1913
 - Bulgaria, Montenegro, Serbia eta Greziak (Balkanetako Liga) Otomandar Inperioaren kontra borroka egin zuten.
 - Herrialde independenteeek bere hedapena bilatu zuten eta beren mugak aldatu zituzten.
 - Ondorioak honako hauek izan ziren:
 - Otomandar Inperioa Balkanetako penintsulatik bota zuten.
 - Muga berriak ezarri ziren Bulgaria, Errumania, Serbia, Montenegro eta Grezian. Serbia eta Errumania Balkanetako potentzia bihurtu ziren.
 - Albania sortu zen 1912. urtean.
 - 3. Lehenengo Mundu Gerra
 - Gerrak Austria-Hungariako Inperioaren amaiera eta bere lurraldeen banaketa ekarri zituen.
 - Gerra amaitu baino lehen, 1917. urtean esloveniarrek, kroaziarrek eta serbiarrek estatu bat osatzeko, Inperioaren barnean, eskatu zioten Austria-Hungariako Inperioari.
 - Gerra amaitzean, 1918. urteko urrian Esloveniar, Kroaziar eta Serbiarren Batzar Nazionala antolatu zen, Zagreb-en gobernu berri bat osatuz.
 - Serbiar hauek Austria-Hungariako Inperioaren lurraldeetan bizi ziren: Bosnia-Herzegovinan, Voivodinan (gaur egun Serbiako eskualdea da, iparraldean kokatuta), Eslavonian (gaur egun Kroaziako eskualdea da, ekialdean kokatuta) eta Dalmazian.
 - Beste aldetik, Serbiako erresuma osatzen zuten: Serbia, Kosovo eta gaur egungo Mazedonia.
 - Gobernu berri horrek Serbiako erresumari lotzea erabaki zuen, Serbiako eta Montenegro erresumak bateratu ondoren.
 - Serbiako erregeak, Alejandro I.ak, erreinu berriaren sorrera aldarrikatu zuen.
 - 1918. urteko abenduan, Batzarra deuseztatu zen.
 - 3.1. Serbiar, kroaziar eta esloveniarren erresuma
 - Serbia, Montenegro, Kroazia, Bosnia- Herzegovina, Eslovenia eta Mazedoniak erresuma berria osatu zuten.
 - 1912. urtean Mazedonia banatu zen Grezia, Serbia eta Bulgariaren artean.
 - Serbiako eta Montenegroko erresumak Inperioaren lurraldeekin batu ziren.
 - Arazoak sortu ziren:
 - Erresuma multietnikoa zen, hizkuntza eta erlijio ezberdinekin (ortodoxoak, katolikoak eta musulmanak):
 - Serbiar-kroaziarrak % 74,4
 - Esloveniarrak % 8,5
 - Hungariarrak % 3,9
 - Alemaniarrak % 4,2
 - Albaniarrak % 3,7
 - Errumaniarrak % 1,9
 - Turkiarrak % 1,25
 - Gainerakoak % 2,14
- Serbiako nazionalismoak garrantzia hartzen zuen.
- Jugoslavian garapen ekonomikoa ezberdina zen. Esloveniak eta Kroaziak garapen handia izan zuten. Biztanleriaren % 75 nekazaritzan zihardun (30. urteetako hamarkadan).

- Baina 1929. urtean Serbiako nazionalismoaren eta gainerako nazionalitateen arteko gatazkak hasi ziren: parlamentuan Kroaziako Alderdiaren liderra hil zuten, Montenegroko diputatu bat salatu zuten. Erregeak Parlamentuari amaiera eman zion eta konstituzioari uko egin zion. Alderdi komunista legez kanpo utzi zuten. Serbiak bere politika zentralista inposatu zuen eta erregimen autoritario bihurtu zen II. Mundu Gerrara arte. Bere aldetik, kroaziarrek eskualde autonomoa bihurtzeko eskatu zuten. Jugoslaviako erresuma aldarrikatu zen, nazionalitateak baztertuz.
- 4. Bigarren Mundu Gerra
 - Bigarren Mundu Gerraren bitartean, Hitlerren Alemaniak eta bere aliatuek Jugoslavia kontrolatu eta inbaditu zuten.
 - Lider berriak, Tito mariskalak, boluntarioak osatutako armadaren eta Errusiako Armada Gorriaren bidez, alemaniarrek bota zituen 1944. urtean.
 - Alderdi Komunista legeztatu zen eta alderdi bakarreko erregimena ezarri zen, Titoren aginpean.
 - Alderdi komunistaren Idazkaritza Nagusia Titok hartu zuen 1937. urtetik bere heriotzara arte, 1980. urtean.
 - Jugoslavia bloke komunistatik urrunditu zen, Titok Sobietar Batasunaren aginpean egoteari uko egin zion.
 - Baina sobietar laguntza ekonomikoa galdu zen eta sozialismo autogestionarioa ezarri zen Jugoslavian. Lantegiak langileen esku geratu ziren eta hasieran nolabait merkatu libreko ekonomia onartu zen.
 - Gutxika-gutxika gobernu federalaren agindua inposatu ziren, alderdi komunistak kontrolatuta.
 - Demokraziaren aldeko mugimenduak eta aldarrikapen nazionalistak (“Kroaziar Udaberria”) zapaldu ziren.
 - Errepublikak deszentralizazioa eta autogobernu gehiago eskatu zuten.
- 5. Jugoslaviaren desintegrazioa
 - Tito hil ondoren (1980), Jugoslaviaren desintegrazioa hasi zen.
 - Kausak honako hauek izan ziren:
 - Demokraziarik eza: adierazpen, elkarte, prentsa eskubideak eta alderdi-aniztasuna eskatzen dira.
 - Ekonomiaren liberalizaziorik eza eta ekonomia krisia (70. urteetako krisi handiagatik)
 - Serbiaren politika zentralista, nazionalismoak (Kroazia, Eslovenia, Kosovo) eta errepublikan konpetentziak zapalduz. Errepublikak konfederakunde bat antolatzeko eskatu zuten, konpetentzia-maila berarekin.
 - Serbiak erabilitako errepresiozko-politika, adibidez, oposizioaren arteko “garbiketak”.
 - Bloke sozialistaren eta Sobietar Batasunaren gainbehera 1989. urtetik aurrera.
- 1990. urtean hauteskundeak ospatu ziren, gobernu berriek independentzia erreferendumak antolatu zituzten.
- Independentzia aldarrikatu bezain laster (1991), Serbiako armada federalak erantzun zuen eta gerrak hasi ziren.
- Ezberdintasun etnikoak ez ziren izan gerraren kausak, gerraren ondorioetako bat baizik. Gerran zehar garbiketa etnikoak burutu zen aurkakoak akabatzeko.
- Jugoslaviako Nazioarteko Auzitegi Penala

- NBEk sortu zuen 1993. urtean, gerrako krimenak epaitzeko.
- 16 epailek osatzen dute, lau urtetarako hautaturik.
- Srebrenica (1995), 8.000 hilda.
 - Bosnia-Herzegovinako herri hori gerran zehar serbiarren menpeko egon zen.
 - Srebrenicako biztanleria NBEk babestuta zegoen, musulmana izateagatik.
 - Bosniako serbiar armadak herria hartu zuen eta 8.000 bosniar hil zituen
 - Erantzuleak:
 - S. Milosevic, Serbiako lehendakaria (1989-1997) eta Jugoslaviako lehendakaria (1997-2000), 2001. urtean kartzelan sartu zen eta 2006. hil zen.
 - R. Karadzic, Bosniako serbiarren liderra, 1995. urtetik iheslaria, 2.008 urtean atxilotu zuten. Epaiketaren zain dago.
 - R. Mladic, Jugoslaviako armadaren Koronela, 2011. urtean atxilotu zuten. Epaiketaren zain dago.
- Kurdistan
 - Kurdistan, Kurduen herria
 - Asiako hego-mendebaldean kokatuta dago.
 - Otomandar Inperioaren eta Persiaren menpean egon zen Kurdistan.
 - Otomandar Inperioaren menpeko kurduak XIX. mendean zehar turkiarren kontrako gatazkak antolatu zituzten independentzia lortzeko.
 - Lehenengo Mundu Gerraren ondoren, Sevreseko Itunak antzinako inperioen nazionalitateentzako autodeterminazio eskubidea onartu zuen.
 - Lurralde banaketaren ondorioz, kurduak banaturik geratu ziren: Turkia, Iran, Irak eta Sirian.
 - Lau herrialde hauetan gutxiengo dira. Baina eskualde honetan bizi direnek antzinako Kurdistan osatzen dute.
 - Komunitate txikiak Georgia, Azerbaijan, Turkmenistan, Kirghizie eta Kazakhstan-en ere daude.
 - Gaur egun kurduak ia-ia 30 milioi dira:
 - Iraken 4 milioi eta bere biztanleriaren % 18 dira,
 - Turkian 15 milioi eta bere biztanleriaren % 24 dira,
 - Iranen 6 milioi eta bere biztanleriaren % 18 dira,
 - Sirian 800.000 eta bere biztanleriaren % 8 dira
 - Gainerakoak izendatutako herrietan bizi dira, bai eta Europan ere.
 - XX. mendean zehar errepresio bortitza jasan zuten.
 - 2.003. urtetik, Iraken, autonomia politikoa, bai eta ekonomikoa ere, lortu dituzte. Kurdu Eskualdeko Gobernu bere hiriburuan dago, Erbil-en, eta petrolio-hobiak kontrolatzen ditu. Horregatik, azken urte hauetan hazkunde ekonomikoa lortzen ari da.
 - Sirian, gerran zehar, autonomia lortzen ari da, eta kurdu estatu bat osatzen saiatzen ari da.
 - Aurten, Turkian, kurduak su-etena aldarrikatu dute eta gobernuarekin negoziatzen hasi dira.